



Kinto eta gero, kinto

Asteburuan kinto ospakizunak izanen dira Bakaiku, Iturmendi, Urdiain, Altsasu eta Ziordian / 12-13

Euskaraldiaren balorazioa egitean herrietako batzordeek argi-ilunak ikusi dituzte / 2-4

Araitz, Larraun eta Sakanako toki erakundeak gasbidea Aralarren barna egitearen kontra / 7

Konpost plantako makina berriarekin guztia balioztatuko dute, zero zabor sortuz / 9

Ezkurdiak eta Martijak Altsasuko partida "final gogorra, baina polita" izango dela uste dute / 16-17

Mikel Astiz ihabardarrak Tuteran gailenduz hasi du 2023ko duatloi denboraldia / 18

Castillo Suarezek Alaska hotelean oinarritutako 'Alaska' liburua aurkeztuko du Altsasan / 23

Sakanaoptika
optometria • audiolometrija
kontaktologia

Neguko
BEHERAPENAK

ESKAINZA BEREZIAK

Inbostia zeharbideta 10 (Altsasu)
948 563 124 | WWW.OPTIKASAKANA.COM



Sakanako Euskaraldia batzordeetako ordezkariak koordinazio bilerak egin izan dituzte. EUSKARA ZERBITZUA

"Gehiago kostatu da herritarrengana iristea"

IZASKUN ERRAZKIN BELTZA ETA AMAIA IPARRAGIRRE MENDIA EUSKARALDIA Hamabost egunez ariketa kolektibo baten bidez euskararen erabilera handitzeko gonbidapena egin zuen Euskaraldiak. Balorazio garaia iritsi da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA Azaroaren 18tik abenduaren 2ra 2.142 sakandar ados jarri ziren eta euskararen erabilera handitzeko ariketa kolektiboan parte hartu zuten. Batzuk ahobizi izan ziren, belarriprest besteak. Euskaraldia pasa da eta ordutik

herrietako batzordeek norbere balorazioa egin du eta haiekin osatu da Sakanakoa. **Euskaraldian kantitateak edo kalitateak, zerk inporta du?** **Amaia.** Edizio honetan kalitateari indarra eta garrantzia eman behar geniola garbi esan zen.

Leku guztietan argi esan zen nahiago zela 20 baino 10 pertsona. Ariketa zintzoa izatea nahi zen. Izena ez ematea emateagatik; izena ematen zuenak konpromiso serioa hartu behar zuen. **2.142 sakandarrek izena ematea asko edo gutxi da?**

Izaskun. Balorazioa egiterakoan errazago baloratzen dira zifrak datu kualitatiboak baino, subjektiboak baitira besteak. Zifren datu objektiboek ematen digute kalean antzeman duguna: 2018tik 2020ra parte hartzaileen jaitsiera nabarmena izan zen eta 2022an bere horretan mantendu da ia, jaitsiera txiki bat egon da. Batzordeekin balorazio bilera egin genuen abendu bukaeran eta datu subjektibo horiek batzordeen bidez jaso dugun inpresioa: gehiago kostatu da herritarrengana iristea, jendea animatzea. Amaiak esan bezala, lorpenen ariketari garrantzia handia ematen saiatu gara. Horren bidez islatu nahi genuen zer den ahobizi eta belarriprest izatea. Ariketari eman nahi genion garrantzia. Lortu dugun? Zaila da jakitea.

A. Sakanan parte hartzea jaitsi bada ere, zenbait herritan igo egin da. Hausnartuta gauza positibo asko ikusi ditugu. Jaitsiera izan den herri batzuetan ere gazte parte hartzaileen zenbatekoa igo egin da. Gazteen parte hartzeari izugarritzko garrantzia eman behar diogu, gure etorkizuna dira.

I. Sakandarren %10,5ek parte hartzea bada zifra esanguratsua. Igoera izan da Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan, Altsasun.

Herrietako parte hartzea homogeneoa izan da?

I. Ariketa hau oso lotuta dago soziolinguistikako datuekin, ezagutza eta, gutxieneko ezinbesteko baldintza, ulermena. Lotura hori ere parte hartzean ere ikusten da. Baina herritik herrira ere aldeak badira. Herrietan dabilzanendako polita da emaitza jasotzea.

A. Irurtzunen ezagutza ez da hain altua eta parte hartzea igo egin da.

Rolak ere aukeratu behar dituzte herritarrek. Ezagutzen dituzte belarriprest eta ahobiziren ezaugarriak eta bata eta bestearen aldeak?

I. Lehenengo Euskaraldian, 2018koan, jada antzeman zen

belarripresten figura hori eza-gutzarekin lotzen duela jendeak, eta ez hainbeste hartzen den konpromiso horrekin: aldi guztietan euskara erabiltzeko erabakia. Oraindik ere kostatzen da. 2020an belarriprestengana gehiago iritsi nahi zen. Baina ahobizi gero eta gehiago daude eta belarriprest gero eta gutxiago.

Zergatik dira parte hartzaile gehienak ahobizi?

I. Sentsibilitate kontu bat da maila handi batean.

A. Ahobiziei errazagoa eginen zaie ariketa. Seguru daude: badakit euskaraz, ahobizi izanen naiz. Baina belarriprest izatea zailagoa iruditzen da: "nik ez dakit asko euskaraz, beraz, belarria jarriko dut". Baina deserosoa da.

I. Euskaraldiaren hasieratik esan genuen hizkuntza ohitura batzuk aldatu nahi direla. Lortu nahi da, besteak beste, elkarrizketa elebidunak hain arraro ez izatea: batek euskaraz hitz egitea besteak erdaraz erantzun arren. Kosta egiten zaigu, eta horren atzean hortik pixka bat badago. Belarriprestek esaten dute: nik gaztelaniaz egiten badizut ere, zuk niri euskaraz egin.

A. Rol hori gizarteratzea zaila da.

Ezagutzarekin identifikatzen da: badakizu, ahoa; ez dakizu, belarria. Eta euskaldun petoak belarriprest txapa jarri eta galdera pila erantzun behar izaten ditu.

A. Hori ikusi dut. Belarriprestekiko enpatia edo elkertasuna izateko. Agian, horrela, beraiek erosoago senti daitezke.

I. Inguruan ikusi dut bakarren bat zintzotasunez, eta ariketa ongi ulertuta, jantzi duena belarriprest txapa. "Oso gertuko harreman bat dut, euskara ulertzen du baina oso zaila egiten zait hori aldatzea".

A. Horrek ariketa modu lasaigoan egiteko aukera ematen dizu. **I.** Baina izan dira belarriprest txapa jarri eta azalpenak eman behar izan dituztenak. Eta horrek ez du erraztu txapa hori jartzea.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



Txapa janztearen garrantzia barneratua du jendeak?

I. 2020an, pandemiarekin, urte nahiko berezia izan zen eta egoe-ra oso berezi hartan txapa gutxi ikusi ziren. 2022ko inpresioa da Sakanan, eta Euskal Herrian, txapa gutxi ikusi direla. Balorazio guztietan atera da. Horri buelta bat eman behar zaio.

A. Izena eman dute, baina ez dute txaparik jarri. Zergatik? Batzuk ariketa hori egiteko prest ez zeudelako. Bestetik, izena ematen duen jende batek esaten du: "nik txapa, zertarako?" Ez dute beharrezkoa ikusten. Eta bai, beharrezkoa da.

Zergatik?

A. Erantzuten dute euskara badakitela, eta euskaraz hitz egiten dutela. Eta galdetzen diezu: "Iruñera edo ez dakit zer herri-tara joaten zarenean, nola eskatuko diozu bakarren bati kafea?" Orduan jabetzen dira. Beraien inguru euskaldunetan beti euskaraz aritzen direla, baina hor-

tik kanpo ateratzen bazara egoe-ra pila izanzen dituzu non ez duzun agian euskaraz hitz egiten. Lehenengo hitza ez duzu euskaraz egiten eta gaztelaniaz eskatuko duzu kafe hori. Orduan ikusten dute beharrezkoa dela.

I. Txapa jartzeak badu berea: udazkena da, agian, berokia edo jertsea aldatzen egon behar dugu. Hori bada modu bat egun horretan Euskalaldian gaudela gogoratzeko, ariketa hori pixka bat kontziente egiteko. Txapak bi helburu ditu. Batetik, zuk zure buruari gogoraraztea Euskalaldiko hamabost egun horietan zaudela. Eta, aldi berean, beste-ri ikustaraztea zein den zure rola, bi norabideetan. Egin diren ikerketek diote txapak bere garrantzia baduela. Baina indarra galdu du.

A. Ariketara indarririk gabe iritsi gara. Izen emateari baino, ariketa egun horiei eman behar zaie garrantzia gehien. Hori baloratu dugu.

Bada euskaldun pila parte hartzen ez duena, esaten duena: "zertarako? Ni banaiz eta!" Jende horri, zer?

A. Esan behar zaio oso garrantzitsua dela haiendako eta ingurukoendako. Nik ez baldin badakit berak euskaraz dakien edo ez, beharbada ez diot euskaraz hitz egiten. Eta pertsona euskaldun gisa identifikatzea oso-oso ona da, dakien hori berarekin euskaraz lasai aritzeko. Tentsio hori ez izateko: "sartu naiz denda honetan eta ez dakit euskalduna den". Zer lasai gelditzen zara jartzen badu: euskaraz badakit. Txaparekin berdin: "ahobizi, belarriprest, jo! Zeinen ondo! Ez naiz hasi behar honi nola hitz egin pentsatzen". Tentsio hori ez izateko eta lasaitasuna izateko balio du.

I. Zalantza hori herri euskaldunetan eta herri txikietan ematen da. "Herri txikietan denak gara euskaldunak, denok dakigu nork ulertzen duen euskaraz eta nork ez". Hala ere, herri txikietan ere baditugu hizkuntza ohitura batzuk ez dutenak laguntzen batzuetan euskaraz hitz egiten. Herri euskaldunetan halako euskalduna da, halako ez. Eta sorpresak hartzen ditugu. Laguntzea den oro positiboa da. Sorpresak gutxi badira ere, euskararentzat irabazi oro positiboa eta beharrezkoa da. Gainera, gero eta gutxiago bizi gara gure herrian bakarrik, beste herrietara ere joan behar izaten dugu. Herri

Batzordeak

IZASKUN ERRAZKIN ETA AMAIA IPARRAGIRRE EUSKARALDIA

Pandemia ondoren, nola hartu zuen jendeak?

A. Hasieran herrietako Euskalaldia batzordeak elkartu genituen eta jendea gogotsu ikusten genuen. Lanerako gogoz zegoen. Gu ere berdin. Gero bidea luzea izan da eta indarra galtzen joan gara.

Indar galera: batzordeak, jendeak, denek?

I. Herri askotan Korrikaren antolakuntzan aritutakoak Euskalaldia herrian dinamizatzen pasa ziren. Nahikoa erraza izaten da ordezkari horiek opatzea herrietan, bere xumetasunean eta txikitasunean. Sakanako gero eta herri gehiagotan daude. 2018an herri batzuk batzorderik edo ordezkari gabe gelditu ziren. 2020an Sakanako ia herri denetan lortu genuen eta 2022an falta ziren gutxi horiek ere sartu dira. Pozgarria. Baina batzordeetan nekea sumatu dugu. Eta hori beste batzuetan baino beranduago hasi garela. Herriarren artean ilusio falta antzeman dugu ere. Lehenengo Euskalaldia hark ekarri zuen berritasun hura dagoeneko ez da hala. Eta horrek batzordeak kutsatu ditu.

A. Batzordeak ilusio handiarekin etorri ziren. Erantzun faltak haien ilusioa jaitsi arazi zuen.

I. Batzordeetako ordezkariekin izaten dugu harremana gehienbat. Batzorde deitzen diegu, baina talde txikiak dira. Denetarik dago. Batzuetan herriko Euskara Batzordeak

hartzen du ardura hori.

Besteetan zinegotziak. Edo eta euskalgintzako beste gai batzuetan aritzen diren berberak, gainera.

A. Herri askotan leku askotan dagoen jendea da, oso konprometituta daudenak. Batzuek onartzen dute: "erdi bakarrik nago".

Euskaltzale berririk gerturatu da?

I. Herrian bertan izena emateko baldintza da herrian batzorde bat egotea. Iruñetan izena emateko aukera izan da. Pertsona bat izan dugu hor laguntzen. 2022ko berritasuna Unanu izan da, indartsu egon dena. Lehen aldia den horietan herriak ilusioz hartzen du. Ez da berdina zure herrian izena ematea, zure herrian Euskalaldia sustatzeko jardunaldiren bat antolatzea, edo ondoko herrian izena eman behar izatea. Beste ilusio batekin hartzen dute.

Osasuntsu daude batzordeak?

A. Denetarik dago. Batzuk nahiko bakarrik sentitu dira eta Mank-ek eta beste batzordeek babes pixka bat eman diete. Leku askotan ari den jendea da. Horregatik, ezin diegu gehiegi eskatu, ez ditugu erre nahi. Gauzak poliki-poliki, arin egiten saiatzen gara, hainbeste bilerarik gabe. Gutxi dira baina gauza puntaletarako laguntza eskatu eta badute. Badaude batzorde osasuntsuak ere, jende dezente dagoena. Beharbada

hirutan elkartu eta horrekin nahikoa izan zuten batzordeak badaude. Horregatik, gainean egon naiz, laguntza ematen saiatzeko.

I. Sakanako batzordeak elkarteak laguntzen du. Gehien bat indar gutxien dutenei. Batzuetan pertsona bakarra da. Horiek eskertu egiten dute. Sakanarako gutxieneko egutegi bat adosten saiatzen gara elkarri ideiak eman... Eskertzen dute.

Euskalaldiaren helburuetako bat euskaltzaleak artikulatzea zen. Lortu da?

A. Batzuk jarraitzeko asmoa adierazi dute. Gero... Baina Whatsapp taldeak segitzeak laguntzen du. Nahiz eta ez ikusi, bilerarik ez egin, taldea osatuta dago eta zerbait puntuala dagoenean berriz elkartzeko dira. Halako taldeak herri askotan mantentzen dira. Beharbada ez dute lanik eginen hurrengo Euskalaldia edo Korrika arte.

I. Komunikazio kanalak sortzen dira. Euskararen inguruko edozer gauza antolatzen denean zabaltzen laguntzen dizun sare bat duzu.

A. Sakanako taldea ere hor dago. Hara euskarari buruzko gauza asko bidaltzen ditugu. Eta herrietan berdin gertatzen da.

I. Baina batzordeak indartzea, ez. Lakuntzan lortu da. Aurreko edizioaren ondoren euskara talde egonkor bat egiteko eta martxan jartzeko saiakera egin zuten. Badabilta horretan. Aldi berean, nekearen arriskua ere ikusi diogu. Gehienbat Ariguneen lanketarekin, nekagarria suertatzen da.

A. Jende hori zaindu egin behar da. Ez zaie gehiegi eskatu behar.



"INPRESIOA DUGU GEHIAGO KOSTA DELA HERRITARRENGANA IRISTEA, JENDEA ANIMATZEA" IZASKUN ERRAZKIN



"BATZUEK EUSKARALDIAN IZENA EMAN DUTE, BAINA EZ DUTE TXAPARIK JARRI. ZERGATIK?" AMAIA IPARRAGIRRE

euskalduneko biztanle horiek ere izan daitezke eragile ez hain herri euskaldunetan. Arbizutik edo Etxarri Aranaztik Altsasura edo Iruñerrira egunero mugitzen gara, asko. Herri euskaldunetako jendearendako mezua ere bada Euskalaldikoa. Batzordeetatik jaso izan dugulako: "gure herrian ez da beharra ikusten". Eta ariketa da modu bat ondoko herrietan, ez hain euskaldunak diren herrietan, eragiteko.

Euskalaldia emakumezkoen ariketa bat da?

A. Datuei begiratu zergo, erabat.

I. Roletan ahobizi nagusi izan den bezala, hiru Euskalaldietan %60tik gora emakumezkoak izan dira, eta, gainera, indartzen.

Zergatik?

A. Galdera zaila da. Buelta asko eman diogu.

I. Euskararekin lotura duten beste ikerketa batzuetan antzeman da: emakumeen jarrera aktiboagoa edo konpromiso handiagoa euskararekiko. Ez dakit zergatik den. Kale erabileraren neurketan emakumezkoen erabilera gizonezkoena baino puntu batzuk gorago dago. Neurketa

horrek agerian uzten du umeen presentziak noraino baldintzatzen duen positiboki euskararen erabilera. Zaintzarekin lotuta egon daiteke? Hipotesietako bat da. **Zergatik dute parte hartzaile gehienek 30 eta 59 urte artean? Non daude gazteak eta adinekoak?**

I. Helduak ez egotea ezagutzarekin lotuta egon daiteke. Hizkuntzaren transmisioa galdu zen herrietan helduen adin tartean agian ez daude hainbeste euskaldun. Alde horretatik, herrien arteko aldeak nabarmenak dira: **HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »**

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Arakil eta Burunda aldean adinekoen parte hartzea izugarri jaisten da. Tarteko adin horietan, badira ikastetxe bidez euskaldundu direnak. Baina horri erreparatu gero, gazteak ere hor egon beharko lirateke. Ez dugu lortu. Lehenengo ediziotik antzeman zen gazteak ez zirela Euskaldian sartu. Baina horren beste alde da gazteen inguruko mugimendu asko Arigune bezala inplikatu direla: gaztetxeek edo gazte elkarteek izena eman dute; Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuan lanketa egin da... Parte hartze bat izan da azken honetan. Gabezia hori ikusten genuelako egin genuen saiera berezi hori ikastetxean. Sakanako gazteen parte hartzea %18ren bueltan dago. Baina Burundako zenbait herritan, esaterako, puntu batzuk gorago dago.

A. Batzordeetatik esan dutenez, gazteek beraiek, gazte asanbladek-edo egindako lanketa bategatik izan da hori. Eskertzekoa da.

I. Haiek haien kabuz landu nahi dutela jaso dute batzordeek: "guk gurea eginen dugu, baina batzordean ez gara sartuko".

A. Ongi etorria haien lana. Iritsiko da momentu bat elkarlana egiteko.

Demografia aztertuta, kopuruan gazteak gutxiago dira. Askoz gehiago dira tarteko adinekoak. Tarte horretakoak parte hartzaile gehien izatea konpromisoaren adierazle da?

I. Batetik, adin tarte horretan daude gurasoak. Lan mundura ere jotzen dugu Ariguneeen bidez, eta hango jende gehiena adin tarte horretan dago.

A. Garrantzitsua da haiek datuetan gehienak izatea. Gazteen eredu, seme-alaben eredu dira.

Entitateetan ere Euskaldia egin da?

I. Lehengora goaz: kualitatibo eta kuantitatibo. Datuek esaten digute izen ematea igo egin dela. Baina, egia da, aurreko edizioako antzeko ezaugarriak dituzte. Gehienbat zerbitzuen mundura iritsi gara Ariguneeen bidez: merkataritza, ostalaritza, finantza erakundeak... Normalean, beraien ekimenez Arigune gisa izena ematen dutenak gutxi dira. Normalean, batzordeetakoek bisitak egin behar dituzte, baita haien izenean izena eman ere batzuetan. Prozesu hori nekagarria da. Baina, aldi berean, oso ezezko gutxi



Ibarreko Euskaldia batzordeen artean ideiak trukatu eta jarduera egutegiak adostu zituzten. EUSKARA ZERBITZUA

jasotzen dira; baldintzak betetzen dituztenak, normalean, prest egoten dira. Hori bada positiboa. **A. Ariketa egiten den? Haiei galdetu beharko litzaieke. Askotan hor galdu egiten gara. Ez dakigu beraiek noraino iritsi diren eta zer konpromiso hartu duten Euskaldirako. Batzorde guztiek baloratzen dute oso erantzun ona izan dutela.**

I. Ahobizi eta belarriprest txapek laguntzen duten bezala, arigune identifikagarri horrek ere batzuetan gure eskemak apurtzen ditu, eta positiboa da euskaraz ulertzen duen entitate hori horrela identifikatzea. Ohitura al daketa ekartzen dute. Zeren ikastetxean eta udaletxean Ariguneeak egotea espero dugu, euskarazko arreta jasotzea.

Lantegiak?

I. Hori da gure hutsunea. Ez aurreko ez honetan ere ez dugu lortu lantegietara iristea. Batzordeendako eremu zaila da. Sakanako Mankomunitatearen eta dinamizatzailearen bidez iristeko saiakerak egin ditugu. Gutunak eta beste bidali dira. Euskaltzaleen Topaguneak berak ere enpresa handietara jo izan du.

"LEHEN EDIZIOAN ANTZEMAN ZEN GAZTEAK EZ ZIRELA EUSKALDIAN SARTU" IZASKUN ERRAZKIN

A. Hasieran zerrenda bat egin izan dugu eta Topaguneak landu du. Gu ez gara, eta batzordeak gutxiago, ez gara lantegietara joan. Batzordeendako izugarriko lana da, ezin da hainbeste eskatu. Herriko saltoki eta beselakoetara iristen nahikoa lan badute. Lantokietara joatea lan zailagoa iruditzen zaigu. Horregatik, Topaguneak egiten du. Egitekoen zerrendan dugu, beste baterako.

I. Enpresa zenbat eta handiagoa izan, ariketak beste tamaina bat hartzen du. Izena emateko baldintzak daude, aurretik hausnarketa egin behar dute...

Ariguneei euskara erabiltzeak zer ematen die?

I. Maila handi batean, herriarekiko gertutasuna. Euskara da Sakanako berezko ezaugarri bat. Eta bi norabideetan. Alde batetik, bezeroak edo erabiltzaileak hartzeko orduan. Eta, aldi berean, langileei ere. Euskaldunak direnek euskara erakutsi eta lantzeko aukera ematen du.

Aurreko bi edizioetan Euskaldia eta Korrika ikasturte berean izan ziren. Azkenekoan, Korrika eta Euskaldian artean uda eta oporrak egon dira. Eraginik izan du aldaketak?

A. Korrikak Sakanan izan zuen arrakastarekin, pentsatzen nuen jendeak pilak kargatuta izanen zituela eta Euskaldia oso-oso gogotsu iritsiko zela. Eta ez zen horrela izan. Ez dakit zer den hobia.

I. Covid-19 gaitzak ekarri du biak urte berean izatea. Lehen ez zen horrela. Hasieran kezka hartu genuen, ondoren ez zait iruditu hain... Euskaldian lehen edizioan denbora askorekin hasi ginen lantzen, aurreko urtean hasi ginen. Baina orain gero eta gehiago atzeratzen ari da Euskaldian lanketa, dagoeneko ariketa berria ez delako, rola eta Ariguneeak ezagutzen direlako... Nahiz eta badauden hobetzeko gauzak. Batzordeek ere lanketa atzeratzea nahita egiten dute, ez erretzeko. Alde horretatik, ez dut gaizki ikusi urte berean egitea. Alde txarra aurrekontuena da. Udalek eta Sakanako Mankomunitateak urte berean bi gastu egin beharra dute, Korrikakoa eta Euskaldikoa.

Korrika zertarako den eta Euskaldia zertarako den, ezberdintasuna argi dago?

I. Helburuak desberdinak dira. A. Euskaldian pertsona ariketa zintzo bat eskatzen diezulako, konpromiso bat hartu behar dute. Korrikan ez dute inolako konpromisorik hartu behar. Korrika euskararen aldeko festa bat da. Korrikan errazagoa da parte

"EUSKALDIK ARIKETA ZINTZOA EGITEA ESKATZEN DIGU. KORRIKA FESTA BAT DA" AMAIA IPARRAGIRRE

hartzea. Horretan Euskaldia gauza serioagoa da.

I. Denboran mugatua da, baina hizkuntza ohituretan eragitea eskatzen ari zara.

A. Esfortzu hori egin behar duzu. I. Aldi berean, aurreko edizioetan izen emate eta txapa asko. Baina ariketa, egin zen? Orain, berriz, kezka dugu: txapa gutxiago, izen ematea ez aurrera ez atzera. Garrantzitsua ariketa egitea da.

A. Hurrengo Euskaldian hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa izan behar da garrantzitsua. Hiru edizio, ariketa ezaguna da dagoeneko?


I. Bai. Herrian informazio mahaia jartzean nabari da egindako ibilbidea. Lehenengo urtean lan handia egin behar izan zen rola gizarteratzen. Maila handi batean lan hori egin dago. Nahiz eta hobeki bereizteko lan egin behar den, rola ezagutzarekin ez lotzeko, baizik eta hartutako konpromisoarekin. Ariguneean 2020an izan zen berritasuna. Gauza batzuk findu behar dira. **A. Ariketa hori ezaguna delako, jende askok ondoren ez du berriro izenik izan, haiendako oso gogorra izan zelako. Inguruan ikusi dut hori. Izugarriko ahalgina izan zen, gehienbat eza gutza ez duenarendako. Belarriprest izan ziren askorendako oso zaila izan zen, oso deseroso sentitu ziren momentu batzuetan. Horregatik, behar bada, izena ematen dute, baina txapa ezkutatatu.**

Hurrengo Euskaldirako zein helburu edo erronka jarriko diozue Sakanako Euskaldian?

I. Ariketa egun horietan indarra jartzea da erronka. Bidean lan asko egin behar da, izen emateak garrantzitsuak dira, baina garrantzitsua ariketa da. Batzordeak ezin gara indarrrik gabe iritsi ariketa egunetara. Bakoitza bere kabuz, libre, aritzea utzi genuen. Ariketa egunetan ezer egin gabe gelditzeak halako sentsazioa sortu zigun. Gero ikusi dugu batzuek bai, baina beste batzuek ez dutela ariketa serio hartu. Jende hori aktibatzeke zerbait egin behar da, eta ez dakigu zer. Ideiak eskertzen dira.

A. Freskotan pixka bat faltatu izan zaio. Zaila da gauza horietan asmatzea, baina herritarrek Euskaldiarekin berriz bat egiteko lehen edizioako ilusioa piztuko duen berritasunen bat edo zerbait behar da.


Sakanako parte hartzea




Sakanako parte hartzea (generoaren arabera)




Sakanako parte hartzea (adinaren arabera)




Sakanako parte hartzea herrika



Sakanako ariguneak





ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Maitasuna

Otsaila, maitasunaren hilabetea dugu. Gabonetako gozo eta apaingarrietatik atera berri garelarik, bat-batean, denda guztiak bihotzez eta bonboiez jantzen dira. Ahalegin horrekin guztiarekin, ezinezkoa zaigu egun horretatik kanpo bizitzea: otsailak 14, San Valentín eguna, maiteminduen eguna. Noski, bikotekidea badaukazu. Alabaina, bikotekidea edukitzeak maitemindurik egotea esan nahi al du? Galdera ona honakoa. Are gehiago, zer gertatzen da bikotekiderik ez badaukazu? Ez al duzu jada maitasunaz gozatzen? Edozer gauza negozio bihurtzen dugun gizarte honetan, badirudi maitasunarentzat egun bat oroigarri jartzearekin nahikoa dugula. Honi esker, agian, ez zaigu maitatzearena ahaztuko.

Halaz ere, zer demontre da maitasuna? Nire irudira, egun bateko kontuaz ala bikotekidea edukitzeaz soilik hitz egitea eskas xamar geratzen da. Amodioaren erruz jaiotzen gara gehienok eta horri esker bizirik irauten dugu. Hasieran amarenganako elkarrekiko sentimendua, pixkanaka beste

AMODIOAREN ERRUZ JAIOTZEN GARA GEHIENOK ETA HORRI ESKER BIZIRIK IRAUTEN DUGU

erlazioetara hedatuz. Amodioaren bidez erlazionatzen gara, hori bera bilatuz besteengan, zerbaiten parte sentitzearen. Maitasunak eraikitzeke eta elkartzeke indarra dauka. Gure bizitzako sua pizten duen egurra, familia edo bikotekideaz gain, lagunak

eta animaliak dira. Ondoz ondoko kontaktu, elkar entzute eta zainketa bermatuz, azkenik, geure egunerokotasunari zentzua emanez. Gure bakardadearekiko aterpe.

Ezinezkoa dugu, bada, maitasunari egun soil bateko espazioa eman, honen bila guztiok gabiltzalarik. Azken batean, gure bizitzako helburua, maitaturik sentitzea baino ez da.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Eta zuk/guk zer egin dezakezu/gu?

SAKANAKO BERTINTASUN ZERBITZUA

Nola jokatu dugu gure taldeko emakume batek indarkeria matxista pairatzen badu? Nola jokatu dugu gure taldeko gizon batek indarkeria matxista eragiten badu? Nola eraiki taldeak, guneak eta komunitate harremanak indarkeria matxistarik gabe? Galdera guzti hauen inguruko hausnarketa prozesua abiarazi da Sakanan Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduna koordinatzeko I. lurralde protokoloaren baitan.

Indarkeria matxistak gizarteko pertsona guztiei eta

haien eremu guztiei eragiten dien gizarte-arazoa dira, eta adin guztietako emakumeek eta adin txikikoek jasaten dituzte gehien. Sakanan ere, gure taldeak eta elkarteak ez daude fenomeno horretatik kanpo, indarkeria matxistak gertatzen baitira. Horregatik, funtsezkoa da hain garrantzitsua den gai bati buruz hitz egitea eta hausnartzea, eta, horrez gain, indarkeria horiek jasaten ari diren edo beste pertsona batzuen aurka egiten ari diren pertsonak ezagutzen

ditugun jakiteko tresnak izatea. Otsailean abiarazi ditugun saio komunitario hauen bidez, kontzientzia eta ezagutzak bereganatzen lagundu nahi dugu, arazo estruktural honi testuinguru komunitarioan behar bezala heltzea erraztuko duena. Guztion artean indarkeriarik gabeko espazio erresilienteak eraikitzeke eta horietan tratatu onak eta erantzukizun soziala sustatzeko saio hauek parte hartzea gonbidatu nahi ditugu Sakanako eragile guztiak. Eta zuk/guk zer egin dezakezu/gu?



OBJEKTIBOTIK



Natxo C.L.
@dut1977

Beriain
E. H.



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirrolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Araitz, Larraun eta Sakanako toki erakundeetako ordezkariak gasbidearen trazaduraren kontra agertu ziren Aralarren.

Gobernuaren erantzun zain

Larraun eta Arakilgo alkateek bilera erronda egin zuten gasbidean ardura duten gobernuko ordezkariekin. Alternatibaren berri emanda, gobernuko deia zain daude. Araitz, Larraun eta Sakanako toki erakundeak gasbidearen kontra agertu dira

ARAKIL / SAKANA

Etxeberri eta Lekunberri Aralarren barna lotuko lukeen gasbide proiektuarekin zuzenean ardura duten Nafarroako Gobernuko ordezkariekin bilerak izan dituzte Larraungo alkate Mikel Uharte Martija eta Arakilgo Udaleko alkate Oihana Olaberria Jakak. "Inork entzun ez gaituen sentipena dugu. Bileretara txostenarekin joaten gara. Hainbat konpromiso atera dizkiegu Pablo Muñoz Trigori (ingurumen zuzendari nagusia), bai Uxue Itoitz Mariñelarenari (Industriaren, Energiaren eta S4 Proiektu Estrategikoen zuzendaria). Baina ez dute bete. Beraz, sententzia da ez gaituztela entzun", esan du Olaberriak. Larraungo alkatearen iritziz, bilera errondan "batak besteari pasa diote pilota: Muñozek Itoitz eta hark kontseilariari".

Azken bilera Mikel Irujo Amegaga Ekonomia eta Enpresa Garapeneko kontseilariarekin eta Izaskun Goñi Razkin Enpresa politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lan zuzendari nagusiarekin izan zuten. "Konturatu ginen gasbide proiektuaren inguruan ezagutza falta izugarria dutela. Saiatu ginen, eta, nik uste lortu genuela, ikus zezaten alternatiba bat badagoela, Plazaolako bide berdea dela, humanizatua dagoen trazadura", gaineratu du Arakilgo alkateak. Haiei ere esan zieten "entzunak ez izanaren sentipena" dutela.

"GASBIDE EGITASMOAREN INGURUAN EZAGUTZA FALTA HANDIA DUTELA KONTURATU GARA"

Eta eskatu zieten udalen txostena aintzat hartzeko. "Bileratik beste sententzia batekin aterantz nintzen", gaineratu du Olaberriak. Bitartean, Uhartek jakinarazi du "estualdi batean jarri" dituztela: "epaile batek esanda,

tamalez, aldeko txostena sinatu behar izan dut. Legealdian behar-tuen sentitu dudana sinadura izan da. Ez nuen besterik".

Txostena eta betebeharrak

Iribastik Irurtzunera ur ekarria egin zuen foru administrazioko teknikari batek txostena egin zuen bi udalendako. "Txosten serio bat da, ez gara ezer asmatzen ari. Dirutza pagatu dugu harengatik. Denei eman diegu. Espero dugu argia sartzea Nafarroako Gobernuan", nabarmendu du Olaberriak. Arakilgo alkateak argitu duenez, "beraiendako ezinezkoa den trazadura egingarria dela dio txostenak". Foru administrazioko ardura-dunek txostena aztertu eta hots egiteko konpromisoa hartu dute. Alkateak deia zain daude.

Uhartek azaldu duenez, "Ingurumen Departamenduak gasbidea baimentzen du baina betebeharrak oso zorrotzak jarri ditu. Orain ikusi beharko da betebeharrak horietan zenbateko malgutasuna duen, zenbat estutzen duen. Nafarroako Gobernuak jartzen dituen baldintzekin obra hori paraje horretan egitea ia-ia ezinezkoa da. Ikerketa handiak eskatzen ditu, eta, segur aski, baldintza horiek beteazaz gero, bertan behera utziko luke". Gaineratu duenez, "Nafarroako Gobernuak orain ardura du horretan eta ikusi beharko da nola heltzen dion gai honi".

Larraungo alkateak gaineratu duenez, "udalen bete beharrek ere oso zail jartzen du obra hori egitea. Eta egin behar badute zehaztutako baldintzak beteazte. Baldintza horiek beteazte badira, zalantzan jartzen da lanen bideragarritasuna". Udalek ematen dituzten hurren-

go pausoez galdetuta, "gure egin beharra da gainean egon, presionatu eta zer egin nahi duten zabaltzea. Horretan eginen dugu indar". Larraungo alkateak gaineratu duenez, "jendeak ez du horrelakorik nahi".

Agerraldia

Aralarko Kontserbazio Babes Eremua hartzen duen Araitz, Larraun eta Sakanako udal eta kontzejuetako ordezkariak elkarrekin prentsaurrekoa eman zuten larunbatean. Patxi Xabier Razkin, Lakuntzako alkatea eta Aralar elkarteko presidentea izan zen bozeramailea eta hark gaztigatu zuenez, "Aralarko zati bat ikutzen badute, guztia ikutzen dute". Gogorarazi zuen 14 km luzeko gasbidearen trazaduratik 5 Aralarko Kontserbazio Babes Eremuan daudela. "Gizarteari eta Nafarroako Gobernuari adierazi nahi izan diegu Aralar ez zela ikutuko. Proiektu horrekin Europako babes irizpideak urratzen ari dira, babes bereziko eremua delako".

Razkinek nabarmendu zuenez, "prentsaurrekoko argazki historikoa da. Lehenengo aldia da elkarteko herri guztietako ordezkariak elkartzen garena denen kontra doan proiektu honen kontra. Historikoa da". Gaineratu duenez, "jakin behar dute aurrean egongo garela etorkizunean ere Aralar ikutzen badute, nahiz eta zati txiki bat izan, hor egongo garela denak elkarrekin berriz ere".

Proiektuaren berri emateko alkateak gaur, 18:00etan, Irurtzungo kultur etxean izanen den mahai inguruan parte hartuko dute. Haiekin batera Greenpeaceko Lorea Flores eta Sarabe Arakama Irigoien ingurumen teknikaria egonen dira.

Txooooo!

JUANLUZENA SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Arbizu eta Lakuntzako Haur Eskola
Uhalte kalea z/g. 31839 Arbizu
948567009
info@kattuka.com
www.kattuka.com

kattuka
haurren eskola

2023-2024 Ikasturtea
Aurrematrikula
Martxoaren 6tik 17ra
Matrikula:
Maiatzaren 18tik 25era

Otsailaren 16an, arratsaldeko 16:30etan ate irekiak
ETORRI KATTUKA EZAGUTZERA



Bosgarren edukiontzian, marroian, materia organikoa jasotzen da. ARTXIBOA

Azokan materia organikoa banatzeari buruzko informazioa

Mank-ek informazio postua jarriko du etxeetan materia organikoa behar bezala nola bereizi azaltzeko

ALTSASU

Etxeetan sortzen diren hondakinen %40 inguru materia organikoa da. Altsasuarrek hura egoki kudeatzeko hiru aukera dituzte: etxean konpostagailua jartzea, herrian dauden bi auzokonpostagailuetako bat erabiltzea edo bosgarren edukiontzia erabiltzea, edukiontzi txiki marroia. Indarrean den hondakinen kudeaketari buruzko legediaren arabera 2020rako materia organikoaren %50 bereizita jaso behar zen. Eta 2027rako frakzio horren %70 jaso behar da bereizita. Altsasun gaur egun materia organikoaren %24 besterik ez da jasotzen.

Hori dela eta, Sakanako Mankomunitatekoak materia organikoaren kudeaketa egokia egiteko informazio postua jarriko du asteazkenetan, azoka egunean, Altsasun. Han Hondakin Zerbitzuko hezitzaile bat egonen da eta herrian materia organikoa kudeatzeko dauden aukerak azalduko ditu. Harengana joaten diren altsasuarrek informazioa jasotzeaz aparte izena emateko aukera izanen dute. Bosgarren edukiontzia erabiltzeko izena ematen dutenek, hura zabaltzeko giltza, materia organikoa etxean jasotzeko poltsa konpostagarriak eta 10 litroko aireztatutako pertz bat jasoko du.

Datuak

Gaur egun Altsasuko 201 etxetakoek auto konposta egiten dute, beste 51 etxebizitzetakoek auzokonpostagailuak erabiltzen dituzte eta, azkenik, 794 etxebiziti-

zetakoek bosgarren edukiontzia erabiltzen dute. Materia organikoa egoki kudeatzen duten etxebizitza horiek Altsasukoen %27,29 dira. 2018ko hasieratik Altsasuko kaleetan barna 140 edukiontzi marroi daude banatuta. Baina altsasuarrek ez dute haiek erabiltzeko pauso handirik eman. Bitartean, Hondakin Zerbitzuak, zituen baliabideak kontutan izanik, materia organikoko hondakin sortzaile handiengana jo zuen, legeak eskatzen zuen bereizketa kopuruera hurbiltzeko. Horregatik, hezitzaileak informazioa eta materiala banatu dute ostalaritzan, elkarteetan eta merkataritzan.

Edukiontzi marroia ezarri berri da Irurtzunen eta, dagoeneko, 237 etxebizitzek eman dute izena. Beste 181 etxebizitzek auzo konpostagailua erabiltzen dutenez, etxebizitzek %40k bereizten du materia organikoa.

Harremanetan jartzeko

Etxe materia organikoa banatu nahi, baina azokatik pasa ezin direnek izena eman dezakete 900 730 450 doako telefonora hots eginez edo info. hondakinak@sakanamank.eus helbide elektronikora mezua bidaliz.

Ez kontzentraziorik, ez pediatarrik

Osasun etxearen parean elkarretaratzeak egiteari utziko diote asteazkenetan. Baina pediatria faltak kezka sortzen du plataforman eta herritarrengan eta horregatik gaurko bilera deitu dute

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak deituta Altsasuko osasun etxearen parean kontzentrazioak egin dira azken sei asteazkenetan. Guztietan jendetza bildu da. Baina bilkurak egiteari utziko diote Burunda mendebaldeko osasun eskualdeko sendagile falta, neurri batean, konpondu baita. Asteazkenean bost mediku egon ziren eta ostegun eta ostiralean sei egotekoak ziren. "Larriena, konpondu da. Medikuri ez zegoela esaten zuten, eta handik edo hemendik ekarri dituzte".

Hala ere, plataformako kideak osasun eskualdeko profesionalen kopuruari eta egonkortasunari adi jarraituko dute. Momentu honetan pediatria faltak kezkatuta ditu. "Asteak dira ez dugula pediatarrik eta gurasoak Iruñera joan behar izaten dute haurrekin. Gainera, haur eta gazte txoei aldi behin egin behar zaizkien azterketak ere ez dira egiten ari". Horregatik, Sakanako Osasun Publikoaren Aldeko Plataformakoek ume eta gazte txoen gurasoak bilera batean parte hartzera gonbidatu dituzte. Pediatria faltari buruzko bilkura hori Kukurereka elkartearen eginen da gaur, 19:00etan. Plataformako kideen eta joaten diren gurasoen artean pediatria lortzeko zer lanketa egin daitekeen aztertuko dute. Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko 15 urte bitarteko ume eta gazte txoak artatzeko lanaldi oso eta lanaldi erdiko pediatria bana egon behar du lukete lanean osasun eremuan.

Plataformakoek, bestetik, gogorazi zuten Etxarri Aranazko osasun eskualdean atzo 26 egun egin zituztela pediatarrik gabe. Lanaldi osoan ariko den pediatria falta da. Azkenik, osasun publiko eta kalitatezkoa aldarrikatzeko Irurtzunen bilkura egin zen asteartean.



Bilkuran adi entzun zuten Arturo Careño Parrasi Arartekoak emandako erantzuna.

ASTEAK DIRA EZ DUGULA PEDIATRARIK, GURASOAK IRUÑERA JOAN BEHAR IZATEN DUTE HAURREKIN"

Arartekoa

Burunda mendebaldeko osasun eskualdeak zuen mediku faltaren berriemateko hainbat herritarrek Nafarroako Arartekoarengana jo zuten abenduaren erdialdean. Haietako bat Arturo Careño Parras izan zen, Patxi Vera Donazarren erantzuna asteartean jaso zuena eta bilkuran irakurri zuena. Arartekoak Osasun Departamentuari gomendatu dio Altsasuko oinarrizko osasun eremuan osasun arreta bermatzeko hartu beharreko neurrietan sakontzeko, eremuak beharrezkoa den mediku kopurua izan dezan.

Osasun Departamentuak orain arte sendagile gabezia konpontzeko eman dituen pausoen berri eman zion Arartekoari eta hark erantzunean jaso ditu, besteak beste: Lan Eskaintza Publikoaren ondorioz, plaza batzuk hutsik

gelditu zirela, mediku bat aurki lanean hasiko dela, osasun eskualdera lanera etortzen diren medikuei diru osagarriak ordaintzen zaizkiela (etxetik Altsasura arteko desplazamendua, azken 6 hilabetetan Nafarroan hori kobratu duten bakarrak), kontratu luzeak eskaini, lana eta familia bizitza kontziliaziorako erraztasunak eman direla eta abar. Baina ezezko asko jaso dituztela jakinarazi dute departamentutik. Azaldu dutenez, "profesional faltagatik libre dauden lanpostuak asko dira eta langileek erabakitzen dute non lan egin nahi duten. Eta lanpostu horiek lehentasunez eskaini arren, ez dugu plantilla osatzea lortu".

Ez dago zuzendaritzarik. "Postu horiek borondatezkoak dira. Eremuko profesionali eskaini ondoren, postua hutsik gelditu zen. Beste eremuetakoei ere eskaini zitzaizkien, baina ez zuten onartu. Horregatik, gaur egun zuzendaritzaren ardura Nafarroa Iparraldeko Lehen Arretako eta Jarraipeneko Zuzendariordetzarena da. Zuzendaritza taldean daude eremuko Erizaintza eta Administrazio Buruzagitza duten erizain eta administrariak".

Administrazio elektronikoa nola ibili ikasi zuten

Ubertearrek eta lakuntzarrek administrazio elektronikoa ezagutu zuten

UHARTE ARAKIL / LAKUNTZA

Herritarrek administrazioarekin gestioak telematiko egiteko aukera dute. Baina horren berri izanda ere pausoa eman edo moldatzen ez den hainbat pertsona daude. Horregatik, estatuak "La Administración cerca de ti" izeneko plana martxan jarri du. Haren bidez herri txikietan administrazio elektronikoa buzurko informazio saioak antolatzen ditu. Haietara joaten diren pertsonak ziurtagiri digitalak edo Cl@ve permanenteak eskuratu ditzakete.

Nafarroako 16 herritara iritsiko da plana otsailean, tartean Uharte Arakil eta Lakuntza. Joan den astean, goiz berean, bi teknikari bi herrietatik pasa ziren eta ubertear eta lakuntzarrek banaka aritu ziren, herritarrek eta autonomoak pasa ziren. Administrazio elektronikora sartzeko identifikaziorako eta sinadura digitalerako bitartekoak eskuratzen lagun zieten lehenik. Ondoren, administrazioen web orrietara nola sartu ikasi zuten teknikarien eskutik.

Teknikariek banakako saioak baliatu zituzten herritarrei azaltzeko eskuragarri dauden zerbitzu publikoen karta eta gehien erabiltzen diren zerbitzuak zein diren. Horrekin batera, Karpeta Hiritarraren abantailen berri ematen zieten. Saioetan parte hartu zuten ubertear eta lakuntzarrek ezagutu zuten zerbitzu publikoetara joan beharrik gabe horietara nola sartu eta tramiteak eta eskaerak nola egin.

Klabe digitalaren edo ziurtagiri digitalaren bidez, edozein lekutatik kudeaketak egiteko eta hainbat erakundetan kontsultak izapidetzeko aukera dago (adibidez, Gizarte Segurantzako Institutuan). Gainera, laster, Enplegu Zerbitzuetan ere kudeaketak egin ahal izatea aurreikutsia dago.



Konpost metak atzean, makina, aurrean egituratzaile meta eta kamioian eta kamioia (etorkizunean plastikoak jasoko dituen edukiontzia).

Makina berria konpost plantarako

Konposta bahetu ondoren gelditzen dena berriro bahetzen du konposteko egituratzaileak, plastikoa eta metalak bereizten ditu. Sakanako Mankomunitateak prozesuarekin guztia balioztatzea eta zero zabor helburua ezartzea espero du

SAKANA

Sakanako Mankomunitatearen konpost plantan konposta egin ondoren hura bahetu egiten dute. Horren ondorioz hiru material mota opatzen dituzte: materia organikoarekin batera nahi gabe botatako koilaratxoak eta sardexkak, materia organikoa jasotzeko konpost poltsak eta plastikozkoak eta konposta egiteko erabili eta guztiz degradatu ez diren materia organikoko egituratzaile puskek (egur zatitxoak, azalak eta beste).

Mank-ek konpost plantan erabiltzeko makina berria erosi du 166.676,29 eurotan. Teknikariek batera probak egiten aritu ziren eta emaitzak ikusita zenbait moldaketa egin zizkieten, "eragin-korratza izateko", argitu du Olatz Garde Mazkiaranek, Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko teknikariak. Ibarreko erakundeko langileak joan den astean makinaren erabileran trebatu zituen enpresa egileko teknikariak. Jakintza jaso ondo-

ren makina aste honetan jarri dute martxan.

Lan moldea

Mank-ek ibarrean jasotako materia organikoa konpost plantara ontzera eramaten du. Konposta egin dagoenean, hura bahetu egiten dute, zati handiak eta bestelako hondakinak kendu eta konposta etxean, baratze edo

sorotan erabiltzeko moduan zutuko. Orain makina berriarekin konposta bigarren aldiz bahetuko dute Hondakin Zerbitzuko langileak, eta, horretarako, erositako makina berria erabiliko dute.

Aurretik bahetutako konposta makina berrian sartu eta bahetuta aterako da. Konpost garbia aterako da eta, aldi berean, bes-

te hiru hondakin ere bereiziko ditu. Batetik, "konposta egiteko erabilitako eta degradatu ez den egituratzailea. Garbia ateratzen denez, berriro konposta egiteko erabiliko dugu", azaldu du Gardek. Bestetik, aire xurgatzaile handi baten bidez poltsa zatiak jasotzen ditu makina berriak. "Horiek birziklatzera bidaliko ditugu". Eta, azkenik, makinak banda magnetikoa du eta, haren bidez, "konpostarekin batera nahastuta dauden metalezko objektuak jasoko ditugu. Normalean, materia organikoa botatzerakoan konturatu gabe botatako koilaratxoak izaten dira. Horiek guztiak txatarra gisa kudeatuko ditugu", argitu du Gardek.

Makina berria lanean ikusi dute dagoeneko teknikari eta langileek. Gardek azaldu duenez, "eraginkortasuna handitzearekin batera, prozesu guztian errefusa gutxi ateratzen da, eta den-dena balioztatzen bukatuko dugu. Zero zabor helburura betetzen lagunduko du makina berriak". Martxan jarri zenetik konpost meta handiak pilatuta dituzte konpost plantan. Hura guztia berriro bahetzea izanen da Hondakin Zerbitzuko langileen egitekoetako bat orain.

Konposta eramateko aukera

Etxeko lore, lorategia edo baratzean erabili daiteke Sakanako Mankomunitatearen egindako konposta. Hala egin nahi dutenek Arbizuko Utzubar EKO guneko bulegoetatik pasa behar da lehenik, astegunetan 08:00etatik 15:00etara. Teknikariren argibideak jaso ondoren nahi beste konpost eramateko aukera izanen dute. Horretarako, norberak zakuak edo gurdiak eramatea eskatzen dute ibarreko erakundetik.

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

PORTUKO

EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57

KOLABORAZIOA

Navas de Tolosa, 1212ko garilak 16

RAFAEL CARASATORRE VIDAURRE

Juan de Mariana Aitak, on Rodrigo artzapezpikuari jarriki, Navasko batailaren akaberaz dio: "ihesaldia oso handia izan zen, sarraskia ez txikiagoa, hain garaipen handiak eskatzen zuena. Bataila hartan berrehun mila mairuk bizia galdu zuten eta haien artean erdia zaldunak izan ziren; beste batzuek kopuru horri erdia kentzen diote. Mirari handiena, fededunen artean hogeita bost baino gutxiagok galdu zutela bizia, don Rodrigo artzapezpikuak aditzera eman zuen moduan; beste batzuek baieztatzen dute ehun eta hamabost izan zirela, kopuru txikia bata eta bestea halako garaipen ospetsuarendako. Beste mirari bat, hainbeste mairu hilda ere, handiagoaz ez ziren oroitzen, zelai guztian ez zen odol arrastorik ikusi, don Rodrigok emandako testigantzen arabera".

Antxo Azkarrak Jimenez de Radari Alfontso VIIIak protagonista zituen gai irristakorrez jarduteko

mandatua emana zion, 1207tik gaztelar liskartiaren zerbitzuan igotzen, eta ez gutxi, gelditu zen.

Hain benetakoa izan omen zen borroka hura, Iruñeko katedraleko burdin hesi ospetsuaren burdinaren jatorriaren parekoa, kontatzen dutenaren arabera musulmanen armadako kateekin forjatua baita, eta Orreagako monasterioan ikus daitekeen esmeralda kolonbiarraren benetakotasun maila berekoa, eta Nafarroako armariaren burugabekeria errematatzeke balioko zuena. 1917an diseinatutakoa, dirudienez, begirada ilargian zela eta ez inguruan. Hobe litzateke lehen gurutzadako Nafarroaren estandarteari erreparatu baliote, hondo gorriaren gainean urrezko zortzi ezpata zituen erdigunera begira, eta haien esku babesek kateatutako marrazkia osatzen zuten.

Errege nafarra, Antxo VII.a Azkarra, 200 bat arimekin joan zen, bere ohiko bidai luzeetako premietara

egokitutako kopuru estua, zeren notarioen, idazkariaren, medikuen, botikariaren, zirujauen, gurdizainen, zurginen, jostunen, errementariaren, sukaldariaren eta sukalde laguntzaileen artean gutxienez dozena bat jaun eta haien laguntzaileak kontatu behar ziren, baita soildutako garondoren bat Jainkoak lagun joateko; berrehun horiek Yacuben armadaren kanpalekua zartagin, trebera, burruntzi, bizar laban eta labanekin eraso zutela pentsatzeak azalduko luke batailan odolik ez egotea, mairuak barrez lehertuta hilko bailirateke.

Antxo bere lagun Miramamolín Alnasir Mohamed ben Yacub dendan sartu zela uste izatea erraza da, eta ezti eta pikillo pote batzuk eramanez, baita ardo gorri porroia, bere mahomatar lagunari ez baitzion urdaiazpikoa edo txistorra eramanez.

Alfonso VIII gaztelarrari ez lioke ezer eramanez, etsai tematia, errege nafarra almohadea, Marokoko erregea, laguntzen ari zen bitartean Araba eta Gipuzkoa okupatu zituen; bueltatzea hitz eman zuen, baina hitza ez betetzean, suntsitzaileagoa izanen zen armada iritsi zen, "hemen, artzapezpikuak esaten zuen, Gaztela bukatzen da", 1195eko garilaren 19an izan zen, Alarcosen. Zetorrena ikusita, Aita Santuaren aurrean ziurtatu zuen on Antxori usurpatutakoa bueltatuko zuela, eta hala izanen zela sinetsita Yacubengana joan zen Antxo, eta balentria azaldu zion, hala bada, bataila handia izan zen, diplomatikoa, lurra ez zen odolez tindatu, eta egiarekin hain etsaitua zegoen artzapezpiku hura horretan bakarrik dirudi fidagarria; zeren Alfonso VIII.aren zelako zurean Andre Mariaren irudi bat zegoela eta arabiar arkularien geziak hurbiltzean jaurti zituztenen



Alfontso VIIIa Navas de Tolosan, Nafarroako Jauregiko tapiza. BURGOSKO UDAL AGIRITEGIA

DUELA 25 URTE...



Santa eskean

Iturmendin, Burundako gainontzeko herrietan bezala, Santa Agedarekin batera kinto kontuak izaten dira nagusi. Duela 25 urte, estreinakoz, iturmendiar talde batek Santa Ageda koplak kantatzea erabaki eta hala egin zuen. Horretarako herriko txistularien laguntza izan zuen gainera. Santa Ageda bezpera asteazkena zenez, kantu eskea asteburura atzeratu zuten estreinakoz urte hartan.

kontra bueltarazten zituela sinestea nahiko zaila da, nahiz eta mahuka artzapezpikuaren meza jantziaren mahuka baino zabalagoa izan.

Nafarroako ezkutuko kateak Navaseko kontakizunaren legendarekin lotzen dute, espazio publikoak izendatzen dituzte, Maezturi Diputazioko jauregiko paretak margotzea enkargatzen diote eta Huelgasko tapiz mozarabiarra faltsifikatzen

dute, tronuaren saloian jarri, jakinik 1212ko Navasen zentzurik ez duen ez zutoihala, ez bandera ezta militarren enblema dela. Ezjakintasun alarde handia eginik 1954an hala zintzilikatu zuten, eta, zoritxarrez, zegoen arrano doratuaren ordez han jarraitzen du. Noiznahi bada garaia dagokion tokira hegan bueltatzeko eta tapiz esperpentikoa erretiratzeko, Navas de Tolosaren pareko arduragatik.



Udalak egindako estalpera elkarteko taberna eta ekitaldi aretotik sartzen da.

Jubilatu elkarteak portxea mustu du

Zuzendaritzak elkartera joateko eta bere jardueratan parte hartzeko gonbidapena egin du

ALTSASU

Altsasuko Udalak jubilatutako elkartearen portxea eraiki du, ludotekaren parean. Beraz, elkarteko taberna edo ekitaldi aretotik hara ateratzeko aukera dago. Estalpeak bere argiteria du. Eraikuntza lanek 21.599,71 euroko aurrekontua izan dute (BEZ kanpo) eta lana finantzatzeko Altsasuko Udalak La Caixaren gizarite ekintzaren 5.000 euroko dirulaguntza izan du.

Jubilatu elkarteko buru Emilio Boulandier Maizak azaldu duenez, "atzeko patio hori egoera txarrean zegoen. Gauzez edozer gauza gerta zitekeen han. Elkartearen aldamenean dagoen gimnasioaren eta gazte txokoaren artean burdin langa bat zegoen. Udalarri proposatu genion langa hori gure eraikin pareraino atzeratzea eta portxea egitea". Duela urte eta erdi inguru jo zuen elkarteak udalera. Aldean zeramaten teknikari lagun batek egindako proiektua eta aurrekontua. "Halako lanak udalari dagozkiola eta portxeetarako udal araudiak dioena bete behar zela azaldu ziguten, eta udalaren esku utzi genuen guztia".

"Horrela, udal eraikinaren egoera hobetzen da eta estalpeak jarduerak egiteko aukera ematen du". Ludotekako haurrek erabiko dute, baina jubilatutako elkarteko kideek ere. Boulandierrek aurreratu du elkarteko zuzendaritzaren nahia: estalpean adinduek gimnasia egiteko elementuak jartzea, "herriko beste tokitan dauden parekoak"

zehaztu du jubilatutako elkarteko buruak. Horretarako dirulaguntzak dauden begiratuko dutela aurreratu du.

Elkarteaz

Erkuden kalean dagoen jubilatutako elkarteak pandemiagatik 2020a eta 2021eko zati bat itxita egon zen. Itxialdi hori baliatu zuten duela hemeretzi urte zabalduko egoitzan hainbat konponketa egiteko, esaterako, pintatzeko. Ateak atzera zabaldu zituenan edukiera muga 197 pertsonakoa zen eta CO₂ neurgailua jarrita zuten. Baita udalak desfibriladorea ere. Pandemia aipatuta, Boulandierrek azaldu duenez, "oraindik nabari da jende dezentek etortzeko erreparoa duela. Edo adinduegiak egin dira. Hona edozein sar daiteke. Berogailua dago eta horrek ere jendea erakartzen du. Bazkariak ere egiten dira, esaterako Santa Agedan edo inauterietan".

Jubilatu elkarteak antolatzen dituen jardueretan izena emateko lehentasuna bazkideek dute. 2004an ateak zabaldu zituenan elkarteak 600 bat bazkide zituen, baina gaur egun 400en bueltan daude; "berri pozgarria da joan den urtean 15ek edo 20k izena eman zutela", argitu du Boulandierrek. Antolatzen dituzten jarduerak galdetuta honakoak zerrendatu ditu: bingoa (astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:00etatik 20:00etara), podologia zerbitzua (Nafarroako Gobernuaren laguntza duena, eta elkarteak ere ekarpena egiten du),

memoria tailerra (lastailetik abendura eta ilbeltzetik martxora 20na ordu), mantentze gimnasia (astean bitan ordu batez), eguneroko karta partidak (6 edo 8), egun bateko bidaiak (09:00etatik 20:30era. Errioxan, Erriberan, Zumaian, Donostian, Burgosen egon dira besteak beste) eta bidaiak luzeagoak (Extremadura, Portugal, Valentzia...). "Eguneko bidaietarako autobusa atera ahal izateko gutxienez 30-35 pertsona nahi izaten ditugu, bestela ez da ateratzen. Elkartearen arteko karta txapelketak ere jokatu izan dituzte aurreko urteetan.

Ospakizunak ere badituzte: klubaren eguna agorrilean, elkartearen mustu zen egunarekin, eta bazkide eguna kultur astearekin ospatzen dutena lastailean. Hitzaldiez aparte, adinduei eta urrezko eta diamantezko etzeiak egiten dituztenak omentzen dituzte. "Jendeak bultzatu eta eskatzen badu, zuzendaritza jarduerak antolatzeko prest dago". Horiek guztiak aurrera ateratzeko eta eraikinaren gastuak eta ezustekoak ordaintzeko urtero 50.000 euroko aurrekontua dute, bazkideen kuotekin eta erakundearen dirulaguntzekin estaltzen dute. Zuzendaritzan hainbat asmo dituzte. Haien artean dago "zuzendaritza pixkanaka berritzea. Zahartzen ari gara. Jendeak pausoa eman behar du eta ardurak hartu". Bitartean, Boulandierrek elkartera joateko deia egin du, "denona baita".

IHOTEAK

IRURTZUN

OTSAILAK 15 Asteazkena

17:00 Musikal eskolaren inauteri kontzertua, kultur etxean.

OTSAILAK 17 ostirala

18:30 Inauteriak, Atakondoa ikastetxean. Musika eskolako fanfarrea.

IRAÑETA

Txuriz jantzita, bizkaraldeen koloretako zintak airean dantzan, gerriko gorria eta burua estaltzeko koloretako zintak dituzten txanoak daramatzate irintar mozorrotuek. Larunbatean, ihote segizioak kalejira egiten du eta ezkongai dauden emakumezkoen etxeetan ezpel adartxoak egindako paxoak utziko dituzte. Arratsaldean, zanpantzarra aterako da eta Atxun Zarkoa herriatik barna eramanen dute, amaieran, elkartearen aurrean, su emanez.

EGITARUA

OTSAILAK 18 Larunbata

10:30 Hamaiketako: tripotxak, Txapel Azpi elkartearen.
12:30 Ihote segizioaren kalejira.
14:00 Haurren bazkaria.
14:30 Helduen bazkaria.
Ondoren, ihote segizioaren kalejira. Amaieran, Atxun Zarkoari sua emanen diote, elkartearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 16 Osteguna

GARIKUNDE

19:00 Txatarrez jantzitako kintoak kalez kale ariko dira.



ALTSASU

OTSAILAREN 14TIK 26ra

Inauteriei buruzko erakusketa: ikastetxeetan egindako lanak eta Iris Ramos Álvarezren Sustraiak bilduma, lortia kultur guneko erakusketa aretoan.

OTSAILAK 14 Asteartea

17:30 Inauteriei buruzko erakusketaren mustutzea, Baratzeko Bide plazan.

OLAZTI

OTSAILAK 17 Ostirala

19:30 Mari Arokkaren ongi etorria ihoteei, gaztetxeak antolatuta.
21:00 Pintxo pote autogestionatua, gaztetxean.

OLAZTI/OLAZAGUTIAKO UDALA

HIRIGINTZA JARDUKETA PLAN BEREZIA HASIERA BATEZ ONARTUA

Olazti/Olazagutiako Udalak, 2023ko urtarrilaren 19ko ohiko osoko bilkuran, Hirigintza Jarduketa Plan Berezia onartu zuen, Olazti/Olazagutiako Goienkale kaleko 1. eta 3. (6. Poligonoko 557. eta 558. Lurzatietan), Juan Ramon Imaz Vicente jaunak bultzaturik.

Hiri Jarduketako Plan Berezia jendaurrean egonen da hilabete batez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita. Izapide hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroan argitaratzen diren egunkarietan eta Udal honen egoitza elektronikoa iragarri beharko da.

Jendaurreko erakustaldian, edozein pertsonak aztertu ahal izango du Hiri Jarduketako Plan Berezia, eta egoki diren alegazioak egin ahal izango dira. Horretarako, interesdunen eskura geratzen da izapidetutako administrazio-espeditentea, jendaurreko erakustaldian aztertu ahal izan dezaten, jendaurreko ordutegian, astelehenean ostiralera, 10:00etatik 14:00etara.

Hasiera bateko onspenaren akordioa behin betiko izatera pasako da erreklamazioak, oharrak edo inuzkinik aurkeztu ezean. Horrelako egoeraren berri eta behin betiko testua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Olazti/Olazagutian, 2023ko urtarrilaren 23a.
Alkateak, Joseba Vizuete Ascargorta.



KINTOAK

Urteko kintorik gabeko ospakizuna

BAKAIKU Hala ere, gazteek festa ospatuko dute

Aurten kinto den gazterik ez dago Bakaikun, baina horrek ez du esan nahi kinto ospakizunik ez dagoenik. Izan ere, Bakaikun ohitura baita urteko kintoekin batera aurreko urtean izan zirenek eta hurrengo urtean kinto izanen direnek kinto segizioa osatzea. Berez, kinto zahar batek eta kinto gazte batek osatuko lukete kinto ospakizunaren bihotza. Baina aurten bi urte barru kinto izanen diren bost gazteak batu zaizkie, zazpikotea osatuz.

Guztiek Koxko tabernan afalduko dute ostiralean eta Iturmendi-dera joanen dira hango kintoekin

batera parranda egitera. Hala ere, larunbat goizerako fresko egon beharko dute, 09:00ak alderakalean baserritarrez jantzita egonen baitira. Trikitilaria eta panderojolea lagun duela, kinto segizioak herrian barnako kinto eskeari ekinen dio. Haiekin eskuzabal jokatzeko dutenei, esker onez, ardo eskainiko diete. Kinto ospakizunetarako gastuak ordaintzeko dirua jaso ondoren, sagardotegi batera joateko autobusa hartuko dute. Haiekin batera 1996ko eta 1999ko kintoak ere joanen dira. Majo bazkaldu ondoren parranda Altsasun luzatuko dute.



ALTSASU Kintoek domekan eta ostegunean egin zuten dantza. Bihar berriro ere Foru plazan izanen dira 18:30etatik aurrera zortzikoa dantzatzeko.

IHOTEA KUZUZENEAN WWW.GUAIXE.EUS

OTSAILAREN 21EAN 19:00ETAN

FESTAROREN ESKUTIK **guaixe** FUNDAZIOA

Ongi lagundutako hirukotea

ITURMENDI Aurtengo kintoez aparte beste 18 gaztek osatuko dute kinto segizioa

Hiru iturmendiarrek osatzen dute aurtengo kintada: Mili Arce Coria, Aimar Mena Davila eta Oier Agirre Lopez. Haiekin batera aurreko bi urteetako kinto zaharrak eta hurrengo bi urteetako kinto gazteak izanen dira kinto ospakizuneko protagonistak, 21 gazte guztira. Ostiralean afaltzera elkartuko dira guztiak. Aritzaga elkartean haiek presatutako jatekoak jan ondoren, bertan parrandan segida izanen du. Ordurako bakaikuarrak batuko zaizkie.

Hala ere, larunbaterako prest egon beharko dute, 11:00ak aldera, Aritzagan gosaltzeko hitzordua jarrita baitute. Kinto segizioa kideak baserritarrez jantzita joanen dira. Indarrak hartu ondoren, eguerdi partean kinto eskeari ekinen diote. Dirua ematen dieten guztiei jan-edanak eskainiko dizkiete: moskatela eta pastak. Herrian barnako

bueltan Amaieur, Igone eta Gorka trikitilariak lagun izanen dituzte. Kinto eskea despedituta, Aritzaga elkartean bazkaria presatu eta mahaira eseriko dira. Herrian arratsalde pasa ederra egin ondoren, gauean Altsasura joanen dira, han afaldu eta ospakizunarekin segitzeko.

Larunbatekoa ez da Iturmendiko kintoen aurreko kinto eskea izango, izan ere, urte zahar gauean kantu eskean aritu baitziren, egun hauetako gastuei aurre egiteko dirua biltzen. Santa Ageda bezperan Iturmendin ere koplak kantatzen dituzte eta han ere kintoetako batzuk parte hartu zuten. Azkenik, maiatzaren 1ean herriko plazan jasotzen den maiatza kintoek aukeratuko dute, eta hainbaten laguntzaz herrira ekarriko dute. Hilabetea herri erdian zutik eman ondoren, hura bota eta salmentatik ateratzen den dirua kintoendako izaten da.

Azken bi egunak

ALTSASU Herri guztiaren kintadekin batera despedituko dituzte ospakizunak aurtengo kintoek

Kinto altsasuarrek domekan ekin zioten ospakizunari. Goiz-goizetik ekin zioten kinto eskeari, opilen banaketari eta haien salmentagatik esker oneko dantzak eskaintzeari. Lanak fruitua eman zuen eta guztira 22.400 euro lortu zituzten kinto ospakizunetako gastuei aurre egiteko. Diru bilketetan errekorra. Bi egunetako atsedenen ondoren, kintoak, atzera ere, atzo bueltatu ziren plazara zortzikoa dantzatzera, 18:30ean. Aurreko egunean udal langilea kioskoa konpontzen egon ziren hondoratu egiten zela gaztigitu baitzuten txistulariek. Kinto ospakizunak bihar despedituko dira eta gaitzatzeko kintadak batuko dira festara.

Sekulako kintada

URDIAIN Hamasei gazte dira aurten kintoak

Kinto gazte, kinto, kinto zahar eta beti kintoekin, aurtengo kinto segizioa handia izanen da: 39 kide. Haietatik aurtengo kintoak 16 dira: Leire Larrea Esnaola, Haizea Goikoetxea Selva, Ane Zubiria Ziordia, Amaia Lizarraga Lopez de Goikoetxea, Nerea Bengoetxea Crespo, Naroa Agirre Bergara, Miren Murua Ugalde, Mainer Agirre Santano, Mikel Lizarraga Senar, Asier Etxeberría Anton, Owen Berdote Davies, Jon Gonzalo, Aierbe, Ibai Perez Aristizabal, Peru Goikoetxea Irisarri, Aimar Lopez de Goikoetxea Zufiaurre eta Ioan Goikoetxea Agirre.

Guztiak ere gaur bazkaltzera elkartuko dira baserritar jantziak soinean dituztela. Mahaitik jaso ondoren, trikitilarien eta panderojoleen doinuak lagun dituztela, herrian barna axuri baten zozketarako txartelak salduko dituzte. Handik ateratakoa gazteen festa ordaintzeko izanen da. Langintza poteatzeko eta afaltzeko utziko dute. Ondoren,

ordu txikiak arte festa egingen dute.

Larunbatean bazkaltzera elkartuko dira kintoak. Urdiaingo kintada guztiek beraien eguna ospatzen dute eta, horregatik, duela 25 urte kinto izandakoek zortzikoa dantzatzeko dute plazan 12:00etan. Eguerdian animatua izanen da Urdiainen. Bazkaldu ondoren elkartean Areta III dj-a elkartean izanen da 18:30etik 21:30era. Kintoek baserrietan bizi diren urdiaindarrak bisitatu eta haien festa gogoa erakusteko ohitura dute. Baina hustutzea dela eta errotaraino joanen dira aurtengo kintoak 17:00ak pasatxo direnean. Hango jan-edanak dasatu eta esker onez jota eta porrusalda dantzatzeko dituzte. Ondoren herrira bueltan, gainontzeko herritarren kinto festarekin bat egingen dute gazteek. Maruxak dj-ak dantzarako doinuak jarriko ditu Kaluxa tabernan.

Domekan elkartean gosalduta eta eguerdian plazara joanen dira zortzikoa dantzatzera. Zor-



Urdiaingo kintoak dantzaren entseguan.

tzikoa ikasteko entseguak ilbeltzaren 4an hasi zituzten kintoek. Eta orduz geroztik asteazken eta ostiralero, 19:00etan, entseatzeko hitzordua izan dute Elizazpi frontoian. Ikasitakoa herritarren aurrean erakusterakoan, asko direnez, aldi berean dantzatzeko dute. Zortzikoa aldi berean dantzatzeko bi dantza kate izanen bitan eta beste lautan hiru dan-

tzari kate izanen dira. Guztira seitan dantzatzeko dute Urdaingo zortzikoa 12:30etik aurrera. Dantza kontuak despedituta, axuriaren zozketa egingen dute plazan bertan. Bazkaldu ondoren, trikitilari eta panderojoleak lagun dituztela, kinto eskean ibiliko dira herrian barna. Afaldu eta azken kinto parrandarekin despedituko dute ospakizuna.

Urdiainen urtea hasteko uraren erritua dute. Urteko kintoen artean zozketa egiten da eta emakumezko eta gizonezko bat aukeratzen dute iturrira ur eske joan, eraman eta hura zerbitzatzeko. Aurten Mainer Agirre Santano eta Peru Goikoetxea Irisarri izan ziren. Hori da kintoek urtean zehar duten egitekoa. Bestelako festen antolakuntzan ere laguntzen dute.

Kinto laukotea

ZIORDIA Segizioa, ordea, dozena bat gaztek osatuko dute

Aurtengo Ziordiko kintada lau gaztez osatuta dago: Hasier Baztarrika Lizarraga, Eder Saez Martinez, Aitor Monroi Flores eta Igor Barriola Goikoetxea. 2005ean jaiotakoekin

batara, kinto segizioa kinto zaharrek eta kinto gazteek osatuko dute. Guztira dozena bat laguneko kuadrilla elkartuko da. Kinto ospakizuneko protagonistak Errekakartea elkar-

tean bazkaltzera elkartuko dira gaur. Ondoren, arratsalde pasa gozoa egingen dute, poteoan ibiliz afaltzeko garaira arte. Altsasun parrandarekin segituko dute.

Baserritar jantzia soinean dutela, larunbat eguerdirako kalera aterako dira kinto eskeari ekiteko. Etxez etxeko eskean txaranga izanen dute

lagun. Bazkal garairaino ariko dira eskean eta, ondoren, kintoak ospatuko dituzten gainontzeko herritar guztiekin elkartuko dira. Plazan izanen da hori, 14:00ak pasa direla, bertan Ziordiko zortzikoa dantzatzeko baita. Nahi duen guztiak parte hartu dezake dantzan. Horren ondoren kintoak elkartean bazkalduko dute. Majo bazkal-

du ondoren eta herrian poteo ederraz gozatu ondoren, kinto ziordiarrek Altsasura joanen dira. Bertako kintoak dantzan ikusi ondoren, afaldu eta parrandari han emanen diote segida.

Domekan lasaiago ibiliko dira kintoak. Asteburua borobiltzeko herriko tabernan bazkari ederra egingen dute.





ZUREA, GUREA, DENONA!

ATE IREKIAK

ARBIZU: otsailak 14, 09:30.
ETXARRI: otsailak 16, 09:30.

BILERA INFORMATIBOAK

ARBIZU: otsailak 13, 17:00, ikastolan.
LAKUNTZA: otsailak 14, 17:00, udaletxean.
ETXARRI: otsailak 15, 17:00, ikastolan.

HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA

948 460 286 - etxarri@ikastola.eus



0 km
SAKANAKO
GIDA

AISIALDIA (5)

ANIMALIAK (2)

DENDAK (59)

ELKARTEAK (1)

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK (1)

ERAIKUNTZA GREMIOAK (1)

ERROTULOAK (1)

ESNEKIAK (5)

ESTETIKA (25)

ETXEA, DEKORAZIOA, ALTZARIAK (8)

GARAPEN AGENTZIAK (1)

GASOIL BANATZAILEAK (1)

GASOLINDEGIAK (1)

GIZARTE ERAGILEAK (2)

GREMIOAK (1)

HEZKUNTZA (28)

INFORMATIKA (1)

INPRIMATEGIAK, PAPERTEGIAK (1)

JAKIAK (2)

JATETXEAK, TABERNAK, OSTATUAK (21)

KOMUNIKABIDEAK (2)

LANTEGIAK (2)

LOREZAINZA (1)

MOTORRA (21)

NEKAZARITZA, BASOGINTZA (1)

OSASUNA (20)

PROFESIONALAK (15)

ZERBITZU PUBLIKOAK (12)

ZERBITZUAK (19)

260
KLIK BAKARREAN

<https://guaixe.eus/gida/>

FUTBOL PREFERENTEA

19. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Amigó	0-1
Beti Casedano - Etxarri Aranatz	1-0
Lagun Artea - Beriain	1-0

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1	Universidad de Navarra 44
9	Altsasu 26
17	Etxarri Aranatz 10
18	Lagun Artea 8

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 11, LARUNBATA

16:15 Etxarri - Ilunberri (*San Donato*)

OTSAILAK 12, IGANDEA

16:00 Salesianos - Lagun Artea (*Salestarak*)16:30 Altsasu - Beriain (*Dantzaleku*)

Altsasuk Beriain hartuko du

Amigóren kontra galdu ondoren, sailkapeneko behealdean dagoen Beriain taldea hartuko dute altsasuarrek.

Etxarrik arerio zuzena du

Azken jardunaldietako bolada txarrari buelta eman nahi dio Etxarrik, etxean Ilunberriren kontra ongi jokatu.

Lagun Artearen lehen garaipena

Azken postuan jarraitzen du Lagun Arteak, baina Beriainen kontrako garaipenak haizea eman dio eta bolada horri eutsi nahi dio.

EMAKUME PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Gazte Berriak - Altsasu	2-0

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENT. 1. MULTZOA	
1	Idoya 36
7	Altsasu 13

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 18-19KO ASTEBURUA

Altsasu - Burladés (*Dantzaleku*)

Altsasuren atsedendaldia

Geraldia ongi etorriko zaio Altsasuri bueltan Burladés sasoi betean hartzeko.

FUTBOL ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Altsasu B - Aranguren	1-1

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA	
1	Beti Onak B 45
12	Altsasu B 13

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 15, ASTEAZKENA

19:30 Rotxapea B - Altsasu B (*El Irati*)

Altsasuk asteazkenean jokatu du

Sailkapenean bigarren den Rotxapea B taldea da Altsasuren hurrengo arerioa.



Afizionatuen tropela joan zen asteko Essor Basquen. Laugarren, Iker Mintegi. MARTIN EARLY

Txirrindulari afizionatuak ere martxan dira

TXIRRINDULARITZA Asteburuan Iparraldean jokatuak Essor Basque lasterketak eman zion hasiera amateurren denboraldiari. Hamar afizionatu sakandar ditugu, tartean Aralar eta Burunda klubetatik igo diren hiru berri. Joan zen urtekoetatik bik utzi dute

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Txirrindulari afizionatuen tropelak ekin dio 2023 denboraldia-ri. Aurreko asteburuan Essor Basque Txapelketako bi etapa jokatu ziren Iparraldean, eta asteburu honetan beste bi etapa daude jokoan proba berdinean. Zenbait sakandar ibiliko dira bertan, Iker Mintegi, Martxel Etxeberria eta Mikel Uncilla tartean. Gure errepideei dagokien, afizionatuen lehendabiziko lasterketa otsailaren 25ean jokatu da, Euskaldun Txapelketarako baliagarria den Zumaia Saria. Bestalde, Nafarroan jokatu den lehen proba martxoaren 19an Lizarran erabakiko den Cirilo Zunzarren Memoria izango da.

Gorabeherak

Aurten amateurren mailan hamar txirrindulari sakandar lehiatuko dira errepidean, joan zen urtean baino txirrindulari bat gehiago. Beraz, gora egin dute afizionatuek. Horietatik hiru

Rural Kutxa-Alea talde sakandarraren daude. Jon Erdozia etxarriarrak eta Martxel Etxeberria iturmendiarrak joan zen urtetik jarraitzen dute bertan, baina biei Sakana Group Aralar taldeko jubeniletatik igo den Mikel Uncilla etxarriarra batu zaie. Joan zen urtean taldekide zen Mikel Olaetxea unanurrak, bere garaian Sakana Group Aralarren trebatu zenak, txirrindularitza utzi egin du.

Laboral Kutxa taldean ez dago aldaketarik eta bertan jarraitzen dute Ailetz Lasa ziordiarrek eta Iker Mintegi altsasuarrek, joan zen denboraldiko sentsazio onak berreskuratzen eta progresioa bilatzen. Construcciones Qoda-Ciclismo Riojano taldeak ere bi sakandar ditu 2023 denboraldian: aurretik bertan aritzen zen Andoni Ocaña urdiaindarrak, eta Quesos Albeniz-Burunda taldetik igo den Ander Villalobos altsasuarra. Bestalde, Jon Gil lakuntzarrak Gomur Cantabria Infinita taldean jarraituko du den-

boraldi honetan eta Aitor Ondarra lakuntzarrak ere Latorre Ederlan taldean ekin dio denboraldi berriari.

Afizionatuen mailara salto egin duen hirugarren txirrindulari sakandarra Aimar Tadeo lakuntzarra da. Sakana Group Aralar taldeko jubeniletatik Lizarte taldearen tokia hartu duen Finisher taldera egin du salto Tadeok, maila berriari tamaina hartzeko gogotsu.

Tropel sakandarrak duen beste hutsunea Iker Cerviñorena da. Bere garaian Sakana Group Aralarren trebatu zen txirrindulari irurtzundarrak Telcom taldean egin zuen bere afizionatuen mailako ibilbidea, baina txirrindularitza utzi du.

AURTEN HAMAR TXIRRINDULARI AFIZIONATU SAKANDAR DAUDE, IAZ BAINO BAT GEHIAGO



Tafallako belodromoan. M. EARLY

Sakandarren pistako podiumak

Pista txirrindularitza ibeltzaren 29an Nafarroako Kirol Jokoetako Pista Txapelketa jokatu zen Tafallan. Kimuen mailan Asier Galarza (Quesos Albeniz) txukun ibili zen scratchean, puntuazioan eta kanporaketan.

Haurren nesken mailan Enara Perez (Quesos Albeniz) podiumera igo zen: scratchean eta 200 metroan hirugarren izan zen, eta puntuazioan bigarren. Haurren mutilen mailan sei sakandar lehiatu ziren: Quesos Albenizko Oier Olaberria eta Ibai Galarza eta Alea Aralarko Ion Unai Gonzalez, Unax Etxeberria, Xabier Gorriti eta Ekai Erdozia. Hiru igo ziren podiumera: Oier Olaberria bigarren izan zen scratchean, Ion Unai Gonzalez bigarren kanporaketan eta Unax Etxeberria hirugarren puntuazioan.

Kadeteetan, Quesos Albenizko Ekaitz Perezek puntuazioko proba irabazi zuen. Emakumezkoetan Ecológicas Navarra Beratxa taldeko hiru sakandar lehiatu ziren: Ane Berastegi, Siets Goikoetxea eta Ane Beltran de Heredia. Podiumei erreparatuta, Siets Goikoetxea hirugarren sailkatu zen 200 metroan eta Ane Berastegi hirugarren sailkatu zen scratchean.



Julen Martija eta Joseba Ezkurdia, igandeko partidarako materiala aukeratu berri.

Altsasun, bizi ala iraun

PILOTA Binakako Pilota Txapelketan hil ala biziko partida jokatu da igandean Burunda pilotalekuan. Ezkurdiak eta Martijak Jaka eta Aranguren izango dituzte arerio, eta galtzaileek oso zaila izango dute txapelketan aurrera egitea

Maidet Betelu Ganboa ALTSASU Binakako Pilota Txapelketako hamaikagarren jardunaldian gertatutakoak atzera ere hankaz gora jarri zuen txapelketa eta emaitzei esker, emozioak bete-betean jarraitzen du: txapelketa jokatzaren ari diren zortzi bikoteek dute finalerdietan egoteko aukera. Egunotan jokatu den hamabigarren jardunaldian, beraz, asko dago erabakitzeke.

Elordi-Zabaleta, finalerdietan Hasierako ligaxka despeditzeko hiru jardunaldiren faltan Elordi eta Zabaleta dira finalerdietarako txartela duten bakarrak. Aspeko bikotea gainontzeko bikoteak baino koska bat gorago dagoela ez dago esan beharrik. Jokatu hamaika partidetatik hamar irabazi dituzte eta lider sendoak dira (10 puntu). Hurrengo hiru jardunaldietan

zer gerta, ziurtatuta dute lehen edo bigarren postua, Binakako finalerdietara zuzenean sailkatuko dituen. Larunbatean, Markina-Xemeinen, Lasoren eta min hartuta dagoen Imazen tokia beteko duen Eskirozen kontra jokatu dute. Partida gogorra aurreikusten da, Laso eta Eskiroz hirugarren postuari eusteko irabaztera behartuta daudelako.

Altuna III.ak eta Tolosak salto handia egin zuten azken jardunaldian Lasori eta Imazi irabazita, sailkapenean bigarren postua sendotu dutelako (8 pun-

ALTSASUKOA AZKEN BALA IZAN DAITEKE PARTIDA GALTZEN DUEN BIKOTEARENDAKO

tu), eta hain zuzen ere Lasori eta Imazi (6 puntu) bi puntu ateratzen dizkietelako. Gertu, 5 puntu dituzten hiru bikote daude: Peio Etxeberrria-Rezusta, Urrutikoetxea-Albisu eta Peña-Mariekurrena.

Sailkapeneko azken bi postuetan dauden bi bikoteek, Ezkurdia-Martijak (3 puntu) eta Jaka-Aranguren (2 puntu) azken jardunaldian garaipen garrantzitsuak lortu zituzten eta horri esker txapelketan bizirik jarraitzen dute, finalerdietarako play-offetarako sailkatzeko aukerekin.

Altsasu, erabakigarri Igandean, hilak 12, Altsasuko Burundako jaialdian (17:00, ETB1) jokatu den partida nagusia guztiz erabakigarria izango da, sailkapeneko azken bi bikoien norabidea guztiz baldintzatuko duena. Ezkurdiak eta Martijak

"Txapelketan jarraitzea gure esku dago"

JOSEBA EZKURDIA ETA JULEN MARTIJA PILOTARIAK

Aurpegi alaiak dituzue aspaldiko partez. Azken jardunaldian Urrutikoetxeari eta Albisuri 16 eta 22 irabazita, biziberritu zarete.

Joseba: Emaitza eta joko aldetik hau ez da gure txapelketa onena izaten ari, eta horregatik serio samar ibili gara. Baina hirugarren puntua lortuta bizirik gaude, oraindik zaila dugu baina igandean Altsasun Jakari eta Aranguren irabazten badiegu txapelketa absolutuan borrokan segiko dugu eta helburu eta gogo horrekin gaude. Horregatik aste hau lasaiagoa ari da izaten, eta gustura eta poztasun horrekin gaude.

Hasieratik ongi entrenatzen ari omen zarete, baina gero zer gertatzen zitzaizuen kantxan? Alde psikologikoak eragina izan al du?

Julen: Niri askotan gertatzen zait partida batzuk galdu ondoren bolada negatiboan nagoenean gero kosta egiten zaidala. Entrenatu nahiko ongi egiten dut, baina gero partidetan kostatzen zait; agian konfiantza falta izan daiteke.



ASPE

"ALTSASUKOA FINAL BAT DA. FINAL GOGORRA. BAINA ORAIN HOBE GAUDE, IGANDERAKO GOGOTSU"

Urduriago egoten naiz. Eta nik uste dut konfiantza hori izatea falta izan dugula, eta partidaren gehiago sartuta egotea ere bai. Horregatik joan zaizkigu partida batzuk; ongi hasten ginen, baina erdialdean partida joaten zitzaigun. Orain ongi gaude, askoz hobeki. Oraindik hiru partida geratzen dira hasierako ligaxka bukatzeko, hirurak oso garrantzitsuak, eta irabaztera. **Ohituta zaudete partida erabakigarriak bata bestearen atzetik jokatzera, baina Altsasuko final garrantzitsu horietako bat dela ezin da uka. Jaka eta Aranguren dituzue arerio, zuek baino puntu bat gutxiago dute, eta igandean galtzen duena egoera latzean geratu da.**

Joseba: Bai, galtzen duen bikoteak zaila izango du. Galduz gero bi punturekin geratu ginateke, egoera latza. Baina txapelketan jarraitzea gure esku dago. Altsasuko final bat da, partida gogor bat, partida polit bat, tentsio handikoa, eta gogo handiz gaude. Eta partida ona egiten dugun, gure maila ematen dugun eta puntua lortu eta gustura goazen etxera.

Gainera etxean, Burunda pilotalekuan.

Julen: Bai, etxetik gertu. Gu sakandarrak izanda, ziur animatuko gaituztela.

Horrek ere eragina du, ezta?

Joseba: Bai. Gu kontzentratuta egoten gara, nolabait gure munduan sartuta, baina frontoian buila badago gehiago motibatzen gara, giro hobea izaten da. Eta etxean bada, hobe. Altsasun gustura jokatu dut. Frontoi arraroa da, baina etxetik gertu jokatzeko gauza handia da eta inguruko jendea frontoian ikustea pozgarria da.

Jaka eta Aranguren nola ikusten dituzue? Azken jardunaldian Peio Etxeberrria eta Rezusta irabaztetik datoz.

Julen: Nahiz eta sailkapenean azpian egon, irabazteko bikote zaila da. Aranguren txapelketa ona egiten ari da, ia ez du akatsik egiten. Zaila dugu, baina orain gu hobeto gaude, oraindik asko geratzen da ligaxka bukatzeko eta sentsazioak hobek dira, baita entrenatzen ere. Horri esker partidara konfiantza gehiagorekin helduko gara. Altsasuko partida iristeko gogoz gaude.

"Konfiantza puntu bat gehiagorekin gaude, baina zaila dugu"

ERIK JAKA PILOTARIA

Igandean hil ala biziko partida duzu Arangurenekin batera Ezkurdiaren eta Martijaren kontra. Nola zaudete animoz? Nola prestatu duzue partida?

Aurreko asteko garaipenarekin nik uste konfiantza puntu bat gehiagorekin iritsiko garela Altsasuko partidara, bai gu eta baita beraiek ere, eurak ere irabaztekin baitatozte. Ezkurdiak eta Martijak guk baino puntu bat gehiago dute eta txapelketan aurrera egiteko guk baino aukera gehiago dituzte, baina guk gure lanean zentratu beharra dugu. Ea astean barna lan txukuna egiten dugun igandean Altsasura baldintza onenetan iristeko.

Sarritan jokatu izan duzu Burundan. Frontoia gustuko duzu, edo zure baldintzetarako ez da pilotaleku egokia?

Beste frontoi batzuk baino irregularxeagoa da, baina azkenean normala izaten da hori. Frontoia industrialagoetan jokatzen ohituta gaude eta herrietako frontoietan gutxiago jokatzen dugu, baina Burunda pilotalekua lehendik ezagutzen dugu, eta ez dago inolako aitzakiarik.

Arerioak, Ezkurdia eta



"EUREK GUK BAINO AUKERA GEHIAGO DITUZTE, BAINA GUK GURE LANEAN ZENTRATU BEHARRA DUGU"

Martija, nola ikusten dituzu?

Ongi ikusten ditut, beti goranzko norabide eta jarrera horretan. Pilotari batek gora egiten duenean arrisksua izaten da, ziurrenik bere konfiantza astez aste gehitzen doalako; beraiek hobeto sentitzen ari dira, eta hobeto jokatzen ari dira. Garbi dugu Altsasuko partida oso zaila izango dela, baina Aitor eta ni uste dut ez garela joko maila txarrean iritsiko, nahiz eta orain arteko emaitzak onak ez izan. Ea partida ona egiten dugun eta 22ra iristen garen.

Jaka eta Aranguren izango dituzte aurkari hil ala biziko partidatan, galtzen duenari txapelketa oso malkartsu jarriko baitzaio. Emozioa ez da faltako, galtzalearendako azken bala izan baitaiteke. Sarrerak salgai daude online edo igandean, 16:00etan, Burundako txarteldegian.

Asteartean igandeko partidarako material aukeraketa egin zen. Martin Alustizak aurkeztutako pilotak aukeratzeko Ezkurdiak eta Martijak Jon Apezetxea Aspeko intendentearen laguntza izan zuten. Aldiz, Jakak eta Arangurenekin Baikoko Jose Angel Balanza "Gorostiza" intendente errioxarra izan zuten alboan. Azkar aukeratu zuten materiala, ez zen inolako arazorik egon, eta lau pilotariak ados egon ziren Altsasukoa "final bat, eta partida gogorra" izango dela esatean eta arerierekiko erres-

peturik handiena erakusterakoan. Material aukeraketara zenbait pilotazale hurbildu ziren. Tartean zegoen Pablo Lopez de Goikoetxea altsasuarra, Altsasu Kirol Elkartean eta Nafarroako Pilota Federazioan makina bat lan egin izan dituen. "Eskerrak aukeraketarako berogailua piztu duten. Materiala partida jokatuko den antzeko tenperaturan aukeratu beharra dago. Pilotetan asko nabaritzen da". Beraz, guztia prest dago Altsasuko partida handirako.

Gainontzeko bi partidak

Gaur, ostirala, Urrutikoetxea ordezkaturiko duen Larrazabalek eta Albisuk Peio Etxeberriaren eta Rezustaren kontra jokatuko dute Tafallan. Larunbatean Al-tuna III.a-Tolosak Peña II.a-Mariekurrena izango dituzte aurkari Labriten.

Material aukeraketak utzi zuena



Ezkurdia Jakak eta Aranguren aukeraturako pilotak probatzen.

Konfiantzaz Azken jardunaldian irabazteak konfiantza eman diela aitortu zuten bi bikoek.



Julen Martija Joseba Ezkurdiaren eskua miatzen.

Ezkurdiaren kailua Duela bi aste kailua zabaldu zitzaion, baina ongi ixten ari zaio, masajeari esker.



Aranguren eta Jaka, hautatutako pilotekin.

Aukeraketa azkarra Bi bikoteek ez zuten materialarekin arazorik izan.



Aukeraketara pilotazale amorratuak hurbildu ziren.

Ikusmina Bi bikoteendako azkenetako bala da jokoan dagoena, eta horrek interesa piztu du.

Promozioan Bakaikoa bide onean

Promozioiko Binakakoan Joanes Bakaikoa etxarriarrak Aimar Morgaetxebarria amorebietarrekin osatu du bikoia, eta txapelketa ona ari dira egiten. 11 jardunaldi jokatuta, sailkapenean hirugarrenak dira (7 puntu), Salaberria-0.Etxebarria (10 puntu) eta Larrazabal-Eskirozen (8 puntu) atzetik. Bigarren postua lortzeko borrokan, gaur, ostirala, Exposito eta Bikuña izango dituzte aurkari Tafallan. Igandeko Altsasuko jaialdia zabalitzen duen partidaren Promozioan Larrazabal-Eskiroz Zabala-Gaskueren kontra lehiatuko dira. Zabalak eta Gaskuek, irabaziz gero, fabore ederra egingo liekete Bakaikoa-Morgaetxebarriari.



Joanes Bakaikoa Promozioiko Binakakoan txapelketa polita egiten ari da. BAIKO

"Ezin hobeki hasi da urtea niretako, ezin kexatu"

MIKEL ASTIZ ERRO TRIATLETA

DUATLOIA Ihabarko triatletak Tuterako Duatloi Krosa irabaziz ekin dio 2023 denboraldiari. Duatloian eta triatloian distantzia luzeetan ongi ibiltzea du helburu

Maidar Betelu Ganboa IHABAR

Igandean jokaturako Tuterako Duatloi Krosak Nafarroako Duatloi Txapelketa eta 2023 denboraldia mustu zuen. Erriberan hotza zen nagusi eta haizeak gogor jotzen zuen, baina duatletak ez ziren kikildu eta 110 inguruk lortu zuten proba bukatzea. Hasierako 5,5 kilometroko korrikaldiaren ondoren, bizikleta hartu eta 22 kilometro osatu zituzten, bukaeran 2,5 kilometroko korrikaldia egiteko. Gizonezkoetan Mikel Astiz Erro ihabardarra (Hiru Herri) gailendu zen (1:14:32), Iñigo Camarero Alliri (Saltoki) 1:31 minutuko tartea ateraz. Emakumezkoetan Karmele Garaio Aranburuk irabazi zuen, Astizen taldekideak (1:33:29). Hiru Herri talde sortu berriak ezin hobeki hasi du denboraldia. **San Juan taldea utzi eta aurten Hiru Herri talde sortu berriari hasi zara. Zergatik aldaketa hori?** Talde aldaketa ia konturatu gabe egin dut. Aurten bigarren urtea



Mikel Astiz, Tuterako podiumaren gorenean. NAFARROAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

dut Hiru Herri atletismo klubean. Joan zen udan pentsatu genuen: zergatik ez dugu sekzio berria sortzen eta triatloi atala gehitzen? Izan ere, gero eta jende gehiago ibiltzen da bizikletan, bai astean zehar, bai asteburuetan, bidaia-

tzen... Eta animatu ginen. Pozik gaude. Hiru Herri Triatloi sekzio berriari 30 lizentzia inguru ditugu aurten, eta nabarmentzekoa da emakume mordoak ditugula. Eta geroz eta emakume gehiagok izena ematea espero dugu.

Tuterako Duatloi Krosa irabaztea espero al zenuen?

Iaz ere Tuterako proba irabazi nuen, eta aurten ere aukerak ikusten nituen, joan zen urtean bezalako maila zegoela iruditzen zitzaidalako. Lehendabiziko korrikako sektorean lauzpabost duatletek osatutako taldetxoak jarri ginen buruan, baina bizikletako tartean etorri zen aldaketa. Haize handia zebilen, baina hala ere arriskatu nuen eta bakarrik joateko erabakia hartu nuen. Ongi ateratzen, bizikletan tarte dezente hartu nuelako eta azkeneko sektorean eroso ibili nintzelako. Helmugara lasai iritsi nintzen. Beraz, oso pozik nago Tuteran beste behin irabazita. Pena, Tuteran txapelik ez dutela ematen. Domina eta barazkiak, bai ordea (kar, kar).

Zein izango da aurten zure egutegia? Eta helburu nagusiak?

Aurten denetarik izango dut. Nafarroako Duatloi Txapelketa proba ia gehienetan parte hartzen saiatuko naiz. Bestalde, Hiru Herri talde berriarekin Espainiako Txapelketarako proba sailkagarrian parte hartuko dugu, Berlangan (Soria). Asteburu honetan goaz. Ea zer moduz gabiltzan. Aurten ere duatloi proba luzeetan lehiatuko naiz. Apirilaren 1ean jokatu den Zuia Duatloirako serio prestatuko naiz. Eta duatloi denboraldia pasata, triatloi denboraldian murgilduko naiz. Orain arte half distantzia luzean soilik maiatzean

jokatzen den Pamplona-Iruñea Half Triathlon proba egiten nuen, baina aurten Iruñekoan aritzeaz gain, aurretik, apirilean Peñiscolan jokatzen den beste half triatloi proba batean aritzeko asmoa dut. Denboraldia bukatzeko ekaina erdian Frantziara joango naiz, Luchon Triathlon proba gogorra egitera. Horiek dira helburu nagusiak. Ondoren atsedean hartuko dut. Antton Zelaiarekin agian ere zer edo zer egingo dugu, baina hori aurrerago erabakiko dugu.

Altsasu eta Arbizu

Martxoaren 18an Altsasuko XII. Duatloia jokatu da (izena ematea zabalik dago navarratriatlon.com federazioko webgunean) eta martxoaren 25ean Arbizuko XXV. Duatloia, Nafarroako Txapelketarako baliagarria izango den proba.

"HAIZE HANDIA ZEBILEN, BAINA ARRISKATU NUEN ETA ERASOA JO NUEN. ONGI ATERA ZEN"

Marina Zabala eta Maite Beregaña Larrateko podiumean

MENDI LASTERKETAK Lakuntzarra bigarren izan zen 21 km-ko proban eta uharterra hirugarren 11 km-koan

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Igandean Larrate Trail jokatu zen Zarrakaztelun, Nafarroako Atletismo Federazioak antolatutako Navartrail Kopako lehena. Bi distantzian jokatu zen, 21 km eta 11 km, eta guztira 300 korrikalari inguru lehiatu ziren.

Proba luzean Alberto Lasobras (1:30:15) gailendu zen. Sakandarrak ongi ibili ziren. Aimar Araña 33. sartu zen (2:00:25) eta Tomas Calzado 71. (2:34:16). Maria Ordoñezek sekulako erakustaldia eman zuen, sailkapen absolutuan seigarren sailkatuz eta emaku-

mezkoetan gailenduz (1:46:34). Marina Zabala lakuntzarra bigarren sailkatu zen (2:05:21, absolutuan 39.) eta Ainara Galarza urdiaindarrak laugarren (2:10:59, absolutuan 48.).

Proba laburra jendetsuena izan zen. Miguel Angel Hernandez iritsi zen lehena helmugara (50:14). Ioseba Iza arbizuarra Top-20an sailkatu zen, hamabigarren izan baitzen (55:29). Bestalde, Ismael Lopez de Goikoetxea 43. sartu zen (1:01:15), Urko Rekalde 59. (1:04:08) eta Ioni Araña 95. (1:09:03). Emakumezkoetan

Sensi Bergüésen eta Ainhoa Irazozen lehia estuan lehena gailendu zen (58:21), 24 segundoko aldearekin. Hirugarren Maite Beregaña uhartera arakildarra izan zen (59:43), eta 16. postuan Miren Rabaz sailkatu zen (1:13:48, absolutuan 120.).

Marina Zabala, kontentu

Marina Zabala pozik dago Larrate Traileko proba luzeko bigarren postuarekin. "Lasterketa polita da. Ez du desnibel askorik, eta, beraz, asko korri egitekoa da. Hotz handiagoa espero nuen eta termikoa jantzi nuen, baina lasterketa erdian kendu behar izan nuen. Haizeak ere ez zuen gehiegi jotzen. Beraz, gustura ibili nintzen. Bigarrena sailkatzea zorte handia da, kontentu nago". Ez daki Navartrail Kopako berderatzi probatan ariko ote den.



Marina Zabala lakuntzarra, Zarrakazteluko lasterketaren une batean. UNAI PHOTOGRAPHY

"Beste lasterketa batzuetan ere parte hartu nahi dut, beraz, lasterketak iritsi ahala hartuko dut erabakia". Martxoan bi lasterketan du izena emanda, Goierri Garaia bere taldeak Zumarragan antolatzen duen UZ Trailean eta

Jurramendin. "Azken hau luzeago da, ea zer moduz moldatzen naizen. Izan ere, helburu ezberdinak jarri nahi ditut. Eta hortik aurrera, sentsazioen eta gogoen arabera joango naiz lasterketak aukeratzen".

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

IRURTZUN Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGBTI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

IRURTZUN Mahai ingurua.

Lekunberriko gasa. Aralartik 15 km-ko gasbidea Aralarko gasbidearen inguruko mahai ingurua. Hizlariak: Oihane Olaberria Arakilgo Alkatea ; Mikel Uharte Larraungo alkatea; Aitor Larraza Plazaola Partzuergoko Lehendakaria, Lorea Flores Greenpeaceko kide eta Sarabe Arakama Irigoien ingurugiro teknikaria.
18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Monopoli mahai jokoa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ZIORDIA Ipuin kontaketa.

Ainhoa Ramirez de Alda idazleak *Galtzerdi erdi* liburuaren ipuin kontaketa eta tailerra.
18:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 11

ETXEBERRI Arakilgo Zuhaitzaren eguna.

10:00 Zuhaitz landaketa Aralarko gasbidearen proiektua aurreikusitako bidean.
11:00 Otamena.

11:30 Ipuin kontaketa: Iker Uribe eta Joana Zigandaren *Xaxardi eta Ni neu Galtzeta* ipuin kontaketak.

LAKUNTZA Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGBTI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
10:30etik 13:30era, kultur etxean.

ARBIZU Mustutzea.

Sakana Padel pistaren ate irekiera: partidak, profesional handien hitzaldiak, askaria...
17:00etan, Sakana Padel (Utubarr, 3).

ALTSASU Gazte gunea.

Guatafac karta jokoa.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IRURTZUN Mus txapelketa.

Felix Urria Mariñelarena mus txapelketaren finala: Maestre anaiak / Patricia Balda eta Amaia Mauduit / Txiki Iriarte eta Manolo Moreno / Josu Alegre y Eduardo Murugarren.
18:30ean, Pikuxarren.

IRURTZUN Antzerkia.

Don Kijote de Navarra Mikel Goikoetxandiaren antzezlanaren emanaldia, gaztelaniaz.
20:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Kantu afaria.

Euskal kantu tradizionalen musikatutako afaria Bankako Menditarrak taldeak girotuta.
21:00etan, Pikuxarren.

IGANDEA 12

ALTSASU Pilota jaialdia.

Binakako Pilota Txapelketa. Promozioa: Zabala – Gaskue / Larrazabal – Eskiroz. Lehen maila: Joseba Ezkurdi – Julen Martija / Jaka eta Aranguren.
17:00etan, Burunda pilotalekuan.

ETXARRI ARANATZ Bertso

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

La ballena (The Whale) gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Ostirala 10 19:00
Igandea 12 19:30

Una herencia de muerte gaurkotasunezko filmaren emanaldia

Osteguna 16 19:00
Ostirala 17 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO

Goliath zineforum filmaren emanaldia

Osteguna 16 19:00

jaialdia.

Etxarri Aranazko bertso jaialdia. Bertsolariak: Xabat Illarregi, Maialen Akizu, Eneko Lazkoz, Julio Soto, Oihane Bartra eta Alaia Martin. Gai jartzailea: Joseba Beltza.
18:00etan, kultur etxean.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Torturaren aurkako eguna. *Sakanan 149+ #aztnugal. Iluntasunetik argitasunera* elkarretaratzea, Sortuk deituta.
19:00etan, udaletxearen aurrean.

OSTEGUNA 16

ARBIZU Ikastaroa.

Indusketa lana mendiko sagarrondoan ikastaroa. Alde teorikoa.
16:00etatik 18:00etara, Utzugane Garapen Zentroan (Utubarr, 8).

ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.

Ane Ablanedo pedagogia berritzailean formatzailea eta haurtzaro librea adituaren *Askatasuna eta muga haurtzaroan. Zein da dosi egokia?* hitzaldia. Andra Mari ikastolak antolatuta Ikastolak herriari 2023 egitasmoaren barruan.



IRURTZUN Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezank Hirea, aurkitu Gaitunk Geurea* pintura erakusketa. **Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.**



IORTIA KULTUR GUNEKO

ALTSASU Malgaxe emakumearen indarra argazki erakusketa Benito Pajares, Yeray Menéndez, Lobolopez, Scar Lafiniarivo, Jonathan Pisonero eta Rafa Cabalen argazkiekin osatua. **Otsailaren 12ra arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.**

17:00etatik 19:00etara, kultur etxean.

ALTSASU Liburu aurkezpena.

Castillo Suarez idazlearen *Alaska* liburuaren aurkezpena.
18:30ean, Izarra beilatokian.

OSTIRALA 17

IHABAR Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGBTI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Arakilgo gazteendako.

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etan, herriko etxean.

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexologia aholkularitza eta Xbox.
17:30etik aurrera, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Kontzertuak.

Teenage Bottlerocket AEBtako Wyoming estatuko punk rock taldea eta Monte del Oso talde gonbidatuaren kontzertua.
22:30ean, gaztetxean.

Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es



Ez bota etxea leihotik!

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



Juanfran Goikoetxea Goikoetxea

Beti guekin

Kintuek
Urdiain

ESKELA



Joxe Miguel Arbizu
(L.urteurrena)

Javier Larraza
Rafa Chups

Urteurren meza, otsailaren 12an, igandean,
12:00etan Etxarri Aranazko elizan izango da

Berruetako familiye

IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

Olatziko Udalak VII. Hiri Ihoteko Mozorro lehiaketa antolatatu du: Otsailaren 25ean izanen da eta 14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Izena egunean bertan eman daiteke futboleko pistan egongo den zinegotziarekin hitz eginda eta bozketa orria jaso behar da, bertan besteen balorazioa egiteko. Sariak 150 euro, 100 euro eta 50 eurokoak izango dira. Egundik aurrerako 20:00etan, dantzialdian, emango da saridunen berri.

Mozorrotutako balkoien lehiaketa Olatzin: Herri ihotea sustatu asmoz, ihoten batzordeak inauteri gaiarekin balkoi apainketa lehiaketa antolatatu du. Parte hartzaileen balkoiak otsailaren 16tik 25era apainduta mantendu beharko dira. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek otsailaren 15eko 24:00ak arteko epea du izena emateko; udal txan izena emanez edo olaztikohoteak@gmail.com emailera idatzi. 150, 100 eta 50 euroko hiru sari banatuko dira. Bestalde, balkoi guztien argazkiak egingo dira eta hauek udalaren eta inauteri Elkartearen jabetza izango dute.

Gozamenez sexualitateari buruzko film laburren lehiaketa: Sexu eta Harremanei buruzko istorioa leloa duen lehiaketan sexualitatearen ikuspegi positiboa ematen duten ikus-entzunezkoak aurkeztu daitezke, banaka edo taldeka, 12 eta 13 urte arteko sakandarrek parte hartu dezakete,

horretarako Altsasuko Intxostiapunta gazte txokoan izena eman behar da martxoaren 5a baino lehen. 100 eta 200 euroko sari ezberdinak daude jokoan. Bi sari epai-mahiak emanen ditu eta beste gazte altsasuarrek herri bozketa bidez aukeratzeko dute. Aurreko edizioetako lanak www.gozamenez.com web orrian ikus daitezke.

IKASTAROA

Emakume langabeek gaitasun digitalak eskuratzeko doako ikastaroa Altsasun: otsailaren 27tik martxoaren 10era, goizeko 9:15tik 13:15ra. Intxostiapunta gaztetxokoan. Informazioa eta izen ematea 628 328 593 ifonoa edo miraola@altsasu.net helbide elektronikora idatzi.

Adinduendako doako ikastaroa gaitasun digitalak eskuratzeko Altsasun: Informazioaren eta komunikazio teknologiak modu praktikoan erabiltzen ikasteko. Otsailaren 27tik martxoaren 10era, aukeratzeko bitxandatan, 15:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 19:00etara, Intxostiapunta gazte txokoan. Izena emateko 628 328 593 telefonora deitu edo miraola@altsasu.net emailera idatzi.

Sagarrondoan inausketa ikastaroa Arbuzin: Intxiak SGArekin batera antolatutako ikastaro teoriko-praktikoa. Otsailaren 16ean, ostegunean, 16:00etatik 18:00etara Utzaganeko egoitzan alde teorikoa landuko da eta otsailaren

23an, ostegunean, 16:00etatik 18:00etara saio praktikoa egingo da Agotzainaren biribilaren aurrean. Izena emateko epea otsailaren 14an eguerdiko 12:00etan amaitzen da 948 013 058 telefonora deituz edo www.intxi.es web orrian.

Altsasuko kontsumitzaileen udal bulegoa: Nafarroako Kontsumitzaileen Iratxe Elkarteak atenditzen du aurretik 012 telefonon hitzordua hartuta. Doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Otsailaren 14an eta 28an etorriko dira eta martxoaren 7an, 14an, 21ean eta 28an.

Mank-ek ur kontagailuen irakurketa egingo du: Sakanako Mankomunitateak jakinarazi duenez, gaurtik aurrera ur kontagailuen irakurketa egingen du Irurtzun, Lakuntzan, Arbuzin, Baikaun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian. Ibarreko erakundetik jakinarazi dutenez, irakurketa egiterakoan langileek ebaxeren batean bakarren bat opatzen ez badute oharra utziko diote. Ebaxerak hartan bere ur kontsumoaren irakurketa idatzi eta Mank-i jakinarazi beharko dio. Beltzez dauden komaren aurreko zenbakiak hartu behar dira. Horretarako hiru bide daude: 948 464 867 telefonora hots eginez, 663 399 732 telefonora WhatsApp mezua bidaliz edo ura@sakana-mank.eus posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

• **Ion Musa Meaza Diallo**, ilbeltzaren 28an Lakuntzan

EZKONTZAK

• **Kai Galarza Cervera eta Unai Otermin Benito**, otsailaren 3an Iturmendin

HERIOTZAK

• **Maria Pilar Lopez Ariztimuño**, otsailaren 4an Olatzin
• **Maria Angeles Lazkoz Andueza**, otsailaren 6an Lakuntzan
• **Carmen Viudez Serrano**, otsailaren 6an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 📧 @Grupolrache
 📺 Grupolrache
 🌐 www.tanatoriosirache.es



'Pikuxar Dokumentala'-ren grabaketa saioa Pikuxarren terrazan. PIKUXAR

Etorkizunerako dokumentaturik

Irurtzango euskal txokoaren eraberritze prozesuaren inguruko dokumentala aurkeztu dute: 'Pikuxar Dokumentala'. Bertan, Pikuxarreko historia eta egoitza berria eraikitze prozesua agertzen da, bazkideen hitzetan

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN "Azken lauzpabost urtetan Pikuxar prozesu handi batean murgilduta egon da eta horren isla dokumentalaren ekoizpen hau da". Jorge Iriarte Pikuxarreko kudeatzailea da eta azken urteetan bizi izan duen prozesua gertutik bizi izan du. Otsailaren 5ean *Pikuxar Dokumentala* aurkeztu zuten, Irurtzango euskal txokoaren eraldaketa eta historia biltzen duen ikus-entzunezkoa: "Nola bost urtetan pasatu garen elkarre txiki batetik elkarre handi batera, eraikin berri batekin, egoitza berria eta bikoiztu dugun gure bazkideza".

Pikuxarrek izan duen eraldaketa prozesua ez ezik, dokumentala "zerbait gehiago" bada. "Azkenean, Pikuxar ez da azken lau edo bost urtetan egin duguna. Zergatik sortu zen duela 20 urte, zein egoera sozialean zegoen

Irurtzun; ez zegoen euskaldunentzat arnasmune bat, taberna bat non euskal musika entzun genezakeen edo zerbitzariak euskaraz egiten zuten". Egoera horretan sortu zen euskal elkarre duela bi hamarkada, eta horrela hasten da dokumentala ere, "batez ere ulertzeko zergatik iritsi garen egungo egoerara".

Duela bost urte inguru "krisi egoera" batean sartu zen Irurtzango euskal txokoa, "ez genekiela aurrera jarraitu edo ez". Apustu handi bat egitea erabaki zuten. 2017. urtea zen eta Irurtzango erdigunean etxe bat

"LEHENENDABIZIKO MINUTUTIK GRABATZEN HASI ZIREN; OBRAK HASI GENITUENETIK"

erosi behar zutela eta berritu eta handitu behar zutela pentsatu zuten. "Baina horretarako behar asko geneuzkan eta bazkideak bikoiztu eta diru sarrerak handitu behar genituen". Helburua lortzeko jarduerak "pila bat" egiten hasi ziren. "Mugimendu horrekin komunikazio taldeko kideek pentsatu zuten gauza oso potolo bat egiten ari ginela eta dokumentatu behar zela". Beraz, eraldatze prozesua eta dokumentalaren grabaketak nahiko pareko joan dira.

Kameraren aurrean

"Lehenendabiziko minututik ia grabatzen hasi ziren. Etxe zaharra erosi genuenean pentsatu genuen goitik behera aldatu behar genuela eta ez genuela nolakoa zen ezagutuko, beraz, lehenengo gauza etxe zaharra grabatzea izan zen". Etxe zahararen, Pikuxarren

eta auzolanen irudiekin batera, batzordeetako kideen elkarrizketak ere agertzen dira *Pikuxar Dokumentalean*: "Saiatu gara batzorde bakoitzetik ordezkariaren bat agertzea azaltzeko Pikuxar ez dela bakarrik momentu horretan obra bat egiten ari zen elkarre bat, baizik eta aniztasuna azaltzen saiatu gara". Guztira, bederatzi batzorde zuden: obra batzordea, finantza batzordea, kulturagintza...

"Polita da". Iriartek nabarmendu du elkarrizketa askotan musukoarekin ateratzen direla protagonistak. "2020ko martxoaren 7an hasi genituen obrak, eta aste bat beranduago alarma egoera delakoa ezarri zuten. Lehendabiziko grabazioak pandemia hasi baino zazpi egun lehenago egin genituen". Egun horretan eraikitzailea eta bazkideetako batzuk grabatu zituzten, "oso interesgarria da". Elkarrizketak egitera ohituta ez zeudenak, "komisaria bateko galdeketa" bezalakoak zirela aitortu du irurtzundarrak: "Urduri jartzen zara". Auzolanetan grabatutakoak, aldiz, "naturaltasunez" grabatu zituztela esan du, "ez zara konturatzen, oso lasai azaltzen gara".

Dokumentalak aurrekari bat izan zuela eta kameraren aurrean jartzeko "entrenamendua" izan zutela azaldu du ere: "2019an etxearen obrarekin hasi aurretik etxe zaharrean argazkiak ateratzen egon ginen eta bazkideak ateratzen gara. Bazkide guztiak pasa ginen kamera aurretik eta jolas bat bezala izan zen. Oso politak". Argazki horietan 2020ko egutegia osatu zuten.

Erronka handia izan zen Pikuxar berriaren proiektua aurrera eramatea eta, gainera, pandemia izan zen tarteko. "Dena bat-batean suertatu zen. Gu ez ginen jaio obra bat egiteko eta hastea urte eta erdi kostatu zitzaigun". Eta obrekin hasi eta atera pandemia izan zen. "Bakarrik eraikitzailea zegoen lan egiten eta pentsatzen genuen obra hori ezin genuela bakarrik kontratatu eta ordaindu, auzo-

"DOKUMENTALAK ERAKUSTEN DIGU ZER EGITEN DUGUN; HARRO SENTITZEKO MODUKOA"

lanean aritu behar ginen ere. Baina ezin ginen etxetik atera". Zalantza handiak izan zituztela esan du Iriartek. "Pandemia hasi eta hiru hilabetetara, ateratzeko baimena izan genuenean, auzolanen hasi ginen burugogor. Auzolan asko eta jende pila batek parte hartu zuen". Tabernak itxita zeudenez eta aisialdia mugatua zegoenez, "zer egiten genuen? Lanean elkartu". Egoerari buelta eman zioten eta pandemiari "alde ona" aterazi zioten. Ekainerako teiltua egin zegoen eta lehenengo mustutze festa egin zuten. 2021ko ekainean tabernaren eta plaza berriaren mustutzea egin zuten, eta urte bereko udazkenean elkartaren irekiera festa.

Hunkigarria

Pikuxar Dokumentalarekin "harratasun pixka bat" sentitzen dutela aitortu du Iriartek. "Egunerokotasunean gauzak egiten gaude, lanean, eta horrelako dokumentalak erakusten digu zer gauza egiten ditugun, zer filosofiarekin; oso ongi laburbiltzen du gure eginkizuna eta misioa". Harro sentitzeko gauza bat dela nabarmendu du: "Gure jarduerekin disfrutatzen egoten gara, ez gaude elkartean telebistari begira besterik gabe". Oso interesgarria dela eta aurrera jarraitzeko "indarrak" ematen dizkiela esan du ere.

Otsailaren 5ean aurkezpen ofiziala egin zuten eta duela hilabete bat bazkideen aurkezpena egin zuten. Jendeak "oso ongi" hartu du. Dokumentalaren momentu batzuk "hunkigarriak" direla azaldu du Iriartek; alde batetik, 1990ean Irurtzunen egiten zituzten ekintzen irudiak agertzen dira eta, bestetik, "zoritxarrez minbiziaz hil zen gure bazkide eta laguna zen Oskar Lizarraga azaltzen da, eta bera hitz egiten ikustea oso hunkigarria da. Berari esker gaude hemen ere". Dokumentala omenaldi txiki bat ere bada.

Irurtzunen aurkeztu ondoren, dokumentalarekin zer egin "zalantzan" daude. "Ez dakigu zenbat bultzatu, Irurtzundik kanpo zer harrera izango duen". Agian Interneten jarriko dutela edo kultur etxeren batean aurkeztuko dutela esan du Iriartek. "Egia esan, euskalgintzan balio bat dauka dokumental osoa euskaraz dagoelako azpitu-luekin".



Miren Agur Meabek 'Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena' hitzaldia emanen du Ziordian. ARTXIBOA

Literaturarekin gozatzeko geraldia

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzeko, euskarazko kultur kontsumoa eta liburugintza indartzeko, liburutegi publikoen erabilera bultzatzeko eta esperientzia literarioak elkarbanatzeko helburuarekin, Literatura Geraldia antolatu dituzte

SAKANNA
Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak, Baztango

Udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Nafarroako Iparraldeko Euskara

Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, Literatura Geraldia egitas-

moaren bigarren edizioa antolatu dute. Izenak dioen bezala, zenbait egilek hamabi geraldia egingen dituzte Nafar Iparraldeko herrietan, tartean Arbizun, Iturmendin eta Ziordian; 2023ko udaberrian eta udazkenean literatur solasaldiak, lantegiak eta hitzaldiak izanen dira.

Euskaraz irakurtzeko ohitura eta zaletasuna zabaltzea, herritarren euskarazko kultur kontsumoa indartzea, euskal liburugintza indartzea, liburutegi publikoen erabilera bultzatzea eta esperientzia literarioak konpartitzea dira Literatura Geraldia programaren helburu nagusiak. Proiektuaren lehenengo zatia udaberrian izanen da, eta martxoaren 6an, astelehena, hasiko da Arbizun eta maiatzaren 3an, asteazkena, amaituko da Etxalekun. Udazkenean bigarren zatia izanen da geraldia gehiagorekin.

Geraldia

Hiru saio mota izanen dira: literatura solasaldiak, lantegiak eta hitzaldiak. Hala, martxoaren 14an, 18:00etan, Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori* liburuen solasaldia izanen da Iturmendiko udaletxean. Nerea Ibarzabal idazlearen *Bar Gloria* liburuen solasaldia hirutan izanen da: apirilaren 20an, 18:30ean, Lekunberrin; apirilaren

27an, 17:00etan, Arantzan, eta maiatzaren 3an, 19:00etan, Etxalekun.

Hitzaldiei dagokionez bi izanen dira Sakanan: Iratxe Retolazaren *Irakurbide feministak euskal literaturan* martxoaren 6an, 18:00etan, Arbizuko liburutegian, eta Miren Agur Meaberen *Nola atondu (dudan nire) gela bat norberarena* apirilaren 26an, 19:00etan, Ziordiko liburutegian. Retolazaren hitzaldia ere Elizondon izanen da apirilaren 19an, 18:00etan. Bestetik, Eider Rodriguezek *Idazleen gorputzak* hitzaldia emanen du apirilaren 26an, 18:00etan, Elizondon.

Joseba Sarrionandiak ere geraldia egingen du Beran apirilaren 21ean, 18:00etan, eta Larraintzarren apirilaren 28an, 18:00etan, *Egoerak eta liburuak* hitzaldia emanen du.

Programaren barruan bi literatura lantegi egon dira: Mikel Ayerberen *Nola iruzkindu liburu bat?* apirilaren 1ean, 10:00etan, Lesakan, eta Yolanda Arrietaren *Idazketa tailerra* apirilaren 19an, 18:30ean, Leitizan.

**MARTXOAREN 6TIA
MAIATZAREN 3RA
ZENBAIT IDAZLEK
HAMABI GERALEKU
EGINEN DITUZTE**



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

Zein elikagai kontsumitu hilekoaren zikloko fase bakoitzean

Emakumezkoak hilabetean lau fase desberdinetatik pasatzen gara.

Hilekoaren lehenengo bost egunetan gorputzak likido gehiago metatzera jotzen du, eta normala izaten da puztuta sentitzea hilekoa izateak eragiten duen inflamazio egoera dela medio. Egun hauetan zehar burnian aberatsak diren elikagaiak kontsumitu: haragia, arraina, arrautza, esneki edo lekaleak. Omega-3.an aberatsak diren

elikagaiak ere bai: arrain urdina, intxaurrek eta haziak adibidez, antiinflamatorioak diren espezieekin batera.

Fase folikularrean antioxidatzaile eta zinkean aberatsak diren elikagaiak kontsumitu: barazkiak, fruta, itsaskiak, eta barazkien barruan brokolia, azalore eta bruselazari lehentasuna eman.

Obulazioan, estrogeno maila puntu maximora iristen denez, garrantzitsua

litzateke ogia, zereal, arroza eta pastaren kontsumoa murriztea, karbohidrato konplexuei lehentasuna eman; tuberkulu, lekale, fruta, fruitu lehor, zereal integral eta barazkiei hain zuzen.

Fase luteoan metabolismoa handiagotzen da gose eta antsietate handiagoa sorraraziz eta serotonina maila murriztu, umore aldaketak sorraraziz. Elikadura klabea izango da sintoma hauek gutxitzen laguntzeko. Beraz fruta gorri-moreak, zereal integralak, gantza osasuntsua (fruitu lehorrak, haziak, ahuakatea edo txokolate beltza) eta kalitatezko proteinari lehentasuna eman iezaiozu.

Azukreak, elikagai prozesatuak eta alkoholak

aldiz, negatiboki eragiten diote hilekoari inflamazioa egoera handiagotuz, lehen aipatutako sintomak agertzea erraztuz.

Kirolari dagokionez, oro har, hilerokoaren aurreko aldian jarduera fisikoa egiten jarraitzea gomendatzen da, egun horietan agertzen diren sintoma fisikoak eta izaera aldarteak hobetzen direla baitirudi. Ziur asko, horrek zerikusia du jarduera fisikoak endorfinen maila handitzea (ongizatea eraginez) eta nolabaiteko eragin analgesikoa izatearekin.

Bestalde, kirola erregulartasunez egiteak hilekoaren zikloaren fase guztietan sintomatologia hobetzen laguntzen du. Hau da, erregulartasuna ere garrantzitsua da.

Etxarri Aranatz, bertsolarien topagune

Otsailaren 12an, igandea, izen handiko bertsolarien bertso saioa izanen da, kultur etxean

ETXARRI ARANATZ

Bigarren urtez bertso jaialdi handia antolatu dute Etxarri Aranatz otsailaren 12an, igandea, 18:00etatik aurrera. Ohol-tzaren gainean Xabat Illarregi, Maialen Akizu, Julio Soto, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Eneko Lazkoz etxarriarra izanen dira. Joseba Beltza izanen da gai jartzailea.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkunden Ruiz Barroso ALTSASU

Alaska Altsasu eta Gipuzkoako arteko mugan dagoen abandonatutako hotela sinbolo bihurtu du Castillo Suarez idazleak izen bereko liburuan. Dolua, abandonua eta oroitzenak dira liburuak osatzen dituen 60 bat olerkietan agertzen diren gai nagusiak. Irailean, Donostiako Victoria Eugenia, Euskal Jailetako Poesia Orduak egitasmoan *Alaska* liburuaren *teaser* bat egin zuen Juantxo Zeberio piano-jotzailearekin, oholtza hotelaren gelatxo bat bihurtuz. Orain, otsailaren 16an, osteguna, 18:30ean, Altsasuko Izarra beilatokian *Alaska* liburuaren aurkezpena egingen du. Aurkezpenean Garbiñe Petriati eta Mikel Legarra izanen dira ere.

Zer da mugan dagoen Alaska hori? Bidebakterean dagoen hotel abandonatu bat da. Garai batean Alaskan dirua egin zuen gizon batek ireki zuen. Jatetxe bat eta gero hotel handi bat egin zuen Etzegarate bidean. Beti izan da hotel oso elegantea eta txikitik Las Vegas Txiki bat bezala ikusten genuen. Gaur egun, bidebakterean dago, aspaldi dago itxita. Nik uste dut badela toki aztoragarri bat, nolabait esateko, baina aldi berean deigarria. **Zein da zu eta Alaskaren arteko harremana?**

Liburu honen aurrerapena Donostian aurkeztu nuen eta bukaeran emakume batek bukatzean esan zidan berak ere bazuela Alaska bat bihotzean. Oso ongi ulertu zuen zer esan nahi nuen. Alegia, denok daukagu toki, objektu edo pertsona batzuk beraiekiko harremana galdu dugula edo gure bizitzatik desagertu direla, baina gure oroitzenekin oso lotuta daudenak; ez ditugu ongi oroitzen edo erdizka oroitzen ditugu. Kasu honetan, Alaska-n kokatutako istorio edo narrazio txiki batekin hasten da liburuak.

Idea nondik sortu zitzaizun? Dolutik edo Alaskatik?

Dolutik. Maddi Barberri elkarriketa batean itzaltuta gelditu zitzaidan esaldi bat entzun nion: "Nola egin tokien dolua". Bera Lakabekoa da eta Itoizko urtegiari eta hor desagertu ziren parajeei buruzko dokumentalak edo ikus-entzunezkoak egin ditu. Askotan hitz egiten da pertsonen heriotzaz eta zenbat aro dituen doluak, zer prozesua den eta

"Alaska aukeratu nuen tokien doluaren sinbolo bezala"

CASTILLO SUAREZ IDAZLEA

'Alaska' liburuaren aurkezpena egingen du altsasuarrak. Doluaren eta abandonuaren inguruko hausnarketa egingen du, eta aurkezteko "toki aproposena" beilatoki bat da



Castillo Suarez idazle altsasuarrak. UTZITAKOIA

horren inguruko ikastaroak daude. Gainera, nire etxeko batek ematen ditu ikastaro horiek. Baina tokiena deigarria egin zitzaidan. Alaska aukeratu nuen horren sinbolo gisa. Gure bizitzan presente egon diren tokiak. Egin nezakeen beste toki bat, baina iruditzen zitzaidan literarioki eta estetikoki oso adierazgarria. Baita historia ere. Bernardo Atxagaren liburu batean aipatzen da jabea, Alaska... Oso deigarria eta ezohikoa da. Norbait han dirua egin, munduaren beste puntan, eta hain toki berezia eraikitzea. Arkitektonikoki ere oso deigarria da. Pena bat da, egia esan.

Liburuak zeri buruz hitz egiten du zehazki?

Historia txiki bat eraiki dut eta hor kontatzen da garai batean hotel horretan bazegoela zerbitzari bat eta irakurtzen egoten zela. Egia esan, ni ez naiz akordatzan zer irakurtzen zuen, baina nik ekarri dudana istorioa da Virginia Woolfen *Orlando* liburuak irakurtzen zuela. Liburu horretako pertsonaia oso berezia da. Aldi berean, mutil hori gogora ekarri duen neska ari da

"ASKOTAN HARREMANAK, HEIN HANDI BATEAN, EZ DAUDE GURE ESKU; USTEKABEKOAK DIRA"

bere puskak kutxetan sartzen bere etxea utzi behar duelako. Gogoeta egiten du. Askotan harremanak, hein handi batean, ez daude gure esku. Hamaika autolaguntza liburu daude liburudendetan, baina azkenean nor dago gurekin nekez erabaki dezakegu. Orduan, neska honek erabakitzen duena da abandonatu duenarekin ezagutu dituen pertsonak utzi egingo dituela eta gauzekin erabakitzen du kontrakoa, beretako hartuko dituela. Azkenean, aitzaki bat da objektuekin eta tokiekin daukagun harremanari buruz hitz egiteko. Nik esaten dut harremanak oso ustekabeak direla; askotan idazten dut harremanei buruz, baina gure eskumenetik oso kanpo daude. Pasarte batean aipatzen da aireportuan eskala batean dagoen bitartean bere etxean dagoela norbait abandonatuko duela erabaki duena. Idaztea pila bat gustatu zait. Nik asko bidaiatzen dut bakarrik, normalean aireportuetan bakarrik egoten naiz, eta oso deigarria egingen zait zure ondoan tarte baterako jartzen dena. Nola batzuetan gauden tokian geldituko ginatkeenaren sentsazioa daukagun, Santiago Konpostelan, Bartzelonan... Ez ginatkeela etxera bueltatuko. Gauza horiekin entretenitzen naiz.

Aurkezpena Izarra beilatokian egingen duzu. Nola sortu da ideia?

Beilatokia delako Altsasun orain dagoen aretorik ederrena eta aproposena horrelako aurkezpen bat egiteko. Mikel Legarra eta Garbiñe Petriati nire lagunak dira, eta liburuaren hasieran tanatorioak aipatzen dira. Azkenean, horrelako tokiak jendea elkartzeko tokiak dira, agur esateko tokiak, eta Izarrak duen heriotza ulertzeko naturaltasun horrekin bat egingen dut. Iruditzen zait ez zegoela toki hoberik. Beraiek pozik eta ni ere bai.

Nolako izango da?

Musika egongo da. Aurkezpen oso xumea izango da, lagunarteko gauza bat. Bezperan (otsailaren 15ean) prentsako aurkezpena izango da Donostian. Beste aurkezpen bat egongo da eta bertan Juantxo Zeberio piano-jotzailearekin egingo dut. Pentsatzen dut Garbiñek sarrera antzeko bat egingo duela, hitza hartuko duela ere.

Oraindik ilusioa egingen du?

Beti. Liburuaren zain egoten gara.

"Maketetarako pazientzia handia behar da"

Jose Angel Galarza Eskisabel bakaikuarrak 20 urte inguru daramatza urtero Bakaikuko elizako jaiotzarako herriko etxe eta txokoetako maketa berriak egiten. Aurten Bakaikuko eliza egin du

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

1 Nola hasi zinen Bakaikuko etxe eta txokoetako maketak egiten?

Jaiotzak gustatu izan zaizkit, betidanik. Behin Atarrabiakoa zen apaiz bat etorri zen Bakaikura, Josetxo Oloriz, eta elizan jaiotza ederrak jartzen hasi zen: mugitzen ziren figurak, argiztapen berezia zutenak... Oloriz joan zenean, elizako jaiotza jartzeko ardura hartu nuen. Olaztikiko Sakanako Belenzaleen Elkartek ikastaroa egiten zuela jakin nuen, izena eman nuen. Jubilatutako berri, animatu nintzen.

2 Sakanako Belenzaleen Elkartearen ikasi al zenuen?

Eurek poliespanarekin lantzen dituzte jaiotzak, eta poliespana erabiltzen ikasi nuen Olaztin. Larunbatetan joaten ginen David semea eta biok, baina ikasketengatik utzi behar izan zuen. Nik, ordea, jarraitu nuen. Eta pozik.

3 Ikasturte batean ikasi al dituzte poliespana lantzen?

Mainatsua edo iaioa bazara hobe, baina ikasten da. Poliespana lantzeak badu berea, baina niretako zailagoa da erabiltzen ditugun tintekin beharrezko kolorea lortzea.

4 Tintek zailtasuna al dute?

Guk erabiltzen ditugunak ez dira olio margoak. Hauts batzuk erabiltzen ditugu, eta hauts horiek uretan nahastuz sortzen ditugu koloreak. Badu bere zailtasuna, nahi duzun tonua ateratzea kostatzen baita. Margotu baino lehen poliespanari pasta berezi bat ematen diogu, poliespana zuzenean margotzen bada ez baita ongi gelditzen. Nik pasta pixka bat botatzen diot ere kolore nahasketa egin behar dudanean, ur horrek ere gorputza har dezan.



Jose Angel Galarza, azkeneko Gabonetarako egin zuen Bakaikuko elizako maketarekin.

5 Guztiak Bakaikuko maketak dira?

Gehienak Bakaikukoak dira, baina Iturmendiko batzuk ere badituzte. Nire seme Javik egin nahi dudanean etxearen argazkiak ateratzen ditu eta gero nik papelean marrazten dut. Maketak Bakaikuko jaiotzean jartzen ditudanez, jaiotzeko figuren eskalara egiten dut eraikina. Paretek izango duten tamainan mozten duzu poliespana, eta haren gainean lan egiten da. Harriak kuterrarekin markatzen dira, leiho eta ateen espazioa kuterrarekin mozten da...

6 Zaila al da?

Berez ez da horren zaila, baina pazientzia handia behar da eta ordu asko sartu behar dira. Otsailean hasi izan naiz lanean, goizean tarte bat, arratsaldean beste bat... Olaztikokoek egiten dituztenak, horiek bai zailak eta harrigarriak. Lortzen dituzten koloreak ikusgarriak dira.

7 Zein da egin zenuen lehen maketa?

Ez dut gogoan. Duela 20 urte izan zen, 80 urte beteko baitituzte. Urtero maketa ezberdina egiten dut elizako jaiotzean jartzeko. Asko egin dituzte: Bakaikuko herriko etxea, eliza, eliz aurrean zeuden garai bateko etxeak, gero obrak egin baitzituzten, Bakaikuko eskola zaharrak, Santiago base-liza, goiko iturria, barnetegia, ibaia pasatuta dauden etxeak, trenbide ondoko etxeak... Behin Xabierko Gaztelua ere egin nuen.

8 Eta Iturmendikoak?

Bi urtez Iturmendiko eraikinak egin nituen: herriko etxea, iturria, "Palacio" deitzen diogun etxea eta elkartearen aurrekoa, garai batean denda izan zena. Iturmendiarrak galdetu zidaten ea maketak utziko nizkien sanmigeletan ikusgai jartzeko. Eraman zituzten eta asko gustatu omen zitzaizkien. Elkartearen aurreko etxeak galdetu zidaten

ea zer egiten nuen maketekin, euren etxeak nahiko luketela. Nik esan nien lasai asko eramateko, eta etxera eramanez zuten.

9 Maketak oparitzeak ez al ditu pena ematen?

Ez. Maketak handiak dira, espazio handia behar da gordetzeko, eta niretako hobe. Asko oparitu izan dituzte, batzuk etxean dituzte, eta beste batzuk frontoiko baje-retan daude, udalak utzita. Maketak handiak hara ibiltzerakoan batzuetan kalteak izaten dituzte eta pinturak ere hasierako bizi-tasun hori galtzen du, baina nahiko aguantatzen dute.

10 Aurten zer prestatu zenuen?

Bakaikuko eliza egin nuen berriz, aurrekoa nahiko izorra-

tuta zegoelako, eta Bakaikuko eskola zaharren maketa ere jarri nuen. Jendeari gustatu zitzaion, hori esan zidaten behintzat. Urtean zehar beti galdetzen didate ea zer prestatuko dudanez, eta gustura joaten dira elizara ikustera.

11 Datozen Gabonetako maketa prestatzen hasi al zara?

Oraindik ez dakit zer egingo dudanez. Hankako ebakuntza baten ondoren tente egoten asko nekazten naiz eta eserita ezin da lan askorik egin, xehetasunak (teilkak, atek...) ez badira. Kuterrarekin eta erregailuarekin lan egiteko zutik egon beharra dago eta azken urtean asko nekatu nintzen. Tamalez, ez dut erreleborik. Ikusiko dugu.

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
 info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus